

TOKIKOM

2016ko iraila | 162. zenbakia

# ai kor!

txorierriko aldizkaria



Igor Elordui

Erromoko  
gatikarra  
Larrabetzun



**aek**  
euskara praktikoa

**%100 AFEKTIBOIA**



**Txorierriko AEK euskaltegia**  
Euskara ikasi, praktikatu  
Hemian bertan ikasteko aukera  
Azterketak prestatu EGA, A1, A2, B1, B2 eta C1.  
Matrikula zabalik irailaren 30 arte  
Txepetxa euskaltegia: Gorbea kalea 5 beheko, 48160. Derio-Bizkaia (Anbulategia ondoan gaudel)  
94 454 39 67 / 607 598 794 · txepetxa@aek.eus

**DIRU-LAGUNTZAK**

<b>EUSKO JAURLARITZA:</b> maila egiaztatuz gero. <small>Ondareko Itzaskari, azterketa eta irratel</small>	<b>BIZKAIKO ALDUNDIA:</b> deskontu-banua. <small>Bonos descuento de la Diputación.</small>	<b>Txorierriko Mankomunitatea</b> eta Larabetzuko Udala libreko gaitzerik
---	--	---

**BERTOKO**  
MUSIKA TRESNAK ETA KULTURA.

2016/2017  
**IKASTURTERAKO**  
ESKAINTZARIK ONENAK

ALBOKA  
TXALAPARTEA  
PANDURRO ETA FALDIAK  
ERREAL KANTAK  
TXIKITXA  
DULZERAIA



Matrikulazioa BERTOKOren lokalean  
Irailak 6, arratsaldeko 18:00etik aurrera (Erreina guztiak)  
Klasaren hasiera: Irailaren 13tik aurrera  
**ERDU ETA APUNTA ZAITEZ!**

613 789 470  
bertokotasuna@aikor.com  
www.aikor.com/txokos/bertoko

**ARINKA**  
**KASTEGIA**

Goiko kalea, 6 DERIO



LH - DBH - BATX.  
INGELES  
MARRAZKETA  
ERROBOTIKA

TAILERRAK eta  
ESKOLA LAGUNTZA

**944 544 753**  
**695 78 77 74**

[www.arinkakopidenda.com](http://www.arinkakopidenda.com)  
[arinkaikastegia.blogspot.com](http://arinkaikastegia.blogspot.com)

**OK**

**OAKLAND**

ENGLISH

IKASTARO TRINKOAK, UDAN  
MAILA GUZTIAK

**946522857**  
LEHENDAKARI  
LEIZAOLA PLAZA, 2  
48170 ZAMUDIO

Ikastegi homologatua  
**LARRABETZU**  
**MUSIKA ESKOLA**



**MATRIKULA ZABALIK**

Errebale, 7 beheko  
94 455 70 66

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Idoia Aurrekoetxea, eskulangilea
-  **12** Gurean izango da, Karmelo Ayesta
-  **14** Gaztea eta... Lorena Sainz-Maza, hizkuntzalari
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Igor Elordui, AEK-ko prentsa arduradun ohia
-  **22** Zamudioko Merkatu Txikia
-  **23** Nekazaritza Ekologikoa: haziak
-  **24** Xabi Aburruzagaren azken lana, *KeltiK*
-  **26** Txorierriko Euskara liburua
-  **28** Arkaitz Orozko, soka-tirtzailea
-  **30** Taldeak/Elkarteak... Zamudioko Racing Eguna
-  **32** Berbalagunen txokoa... Izaskun Fernández
-  **34** Teknologia... Itzutzailer automatikoa
-  **35** Aikorrizketa... Euskararen Polinesia
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Karmelo Ayesta



26 Txorierriko euskara liburua



30 Zamudioko Racing Eguna



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística



diruz lagundutako aldizkaria



**Argitaratzailea:** TOTOAN,  
Txorierriko Euskara Elkarte  
Federazioa (Lagatu, Zorriketan,  
Arrekilki, Tximintz eta Altzora)  
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35  
aikortxori@aikor.com /  
www.aikor.com

**Zuzendaria:** Xabier Goienetxe

**Erredakzio burua:** Gaizka Eguzkitza

**Erredakzio taldea:** Maite Lekerika, Eduardo Delgado, Jon Goikouria  
Larrabeiti, Juan Luis Goikoetxea eta Aritz ta Nagel

**Kolaboratzaileak:** Toti Martínez de Lezea, Irati Fernández Pujana, Asier  
Bastida, Itsasne Zubiri, Oihana Astobieta eta Jose Angel Mentxaka

**Zuzentzaileak:** Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

**Publizitatea:** Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

**Banaketa:** Egunon

**Maketatzailea:** Gaizka Eguzkitza

**Inprimategia:** Gertu

**Ale kopurua:** 7.000

**Lege gordailua:** BI 137-02 ISSN 1578-9322



Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eritxien erantzukizunik.

## Giza eskubideak

**E**xodoa beti gertatu da gizateriaren historian, eta arrazoiak beti izan dira berberak: gutxi batzuen handinahia, handiustea ere. Norberaren jaioterria utzi eta beste nonbaitera bizimodua ateratzera joan beharra izateko arrazoiak asko eta era askotakoak dira: gozea, ingurumenaren baldintzak, erlijio-jazarpenak edo beste edozein motatakoak, eta batez ere gerrak, gerra madarikatuak. Gizakia da Lurrean dagoen harraparirik hanidena. Eta Jaungoikoak mundu hutsal hau sortu zuen Unibertso neurtuezinean, eta gizakia sortu zuen, bat gizonezkoa eta bestea andrazkoa, eta bi seme izan zituzten horiek, eta bata bestea hil zuen. Gizakia, bere ibilbide guztian zehar, etenik gabe aritu da hitzen eta suntsitzen. Kultura asko eta asko desagertu egin dira. Ez da desagertu egin direla; desartuerazi egin dira, irentsiak izan dira desagertu arte, indartsuenek akatuta, nor-tasunen eta aberastesunen lapurrak izanik.

Inork ez dio konkistatzeari ekingo ez badu ordean zerbait lortzen, eta horixe dago edozein gatazka armaturen ostean, berdin izanda gatazka txikia edo handia bada: boterea, eta besteak daukana norbereganatu, landa-lurrak, urrea, metal preziatuak, petrolioa, gasa... Eta mudua ez da aldatzen.

Ez da nahikoa laguntza humanitarioa bidaltzearekin, ez da nahikoa behar izan daitezkan eskolak eta ospitaleak egitearekin, ezta behar izan daitezkan elikagaien zati bat bidaltzearekin ere; ez da nahikoa bakea matentzeko eliteto tropak bidaltzearekin. Errefuxiatuek gauza bakarra behar dute: beraien jaioterrira itzuli, beraien etxera, eta berriro ere hasi, munduak ukatzen dien aukera hori izateko behintzat. Baina potentzia nagusiek, demokrazia eta giza eskubideak behin eta berriz aipatzen dituzten horiek, ezin badute –edo ez badute nahi-baztertu injustizia, gizateriaren aurkako



**TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA**  
(Idazlea)

krimenak edo guztiok txirotzen gaituzten gerrak, horren atzean dago guk, gure agintariak hautatzen ditugunok, ez diegula exijitzen Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala bere osotasunean betearaz ditzatela, azken punturaino. Gure izenean sinatu zuten, eta zin egin zuten, gure izenean ere, defendatu egingo zituztela duintasuna, bizitza, berdintasuna, elkarkidetzeta, bizikidetasuna, bakea, askatasuna eta ezagutza. Baina argi dago oroimena ahula dena, eta borondatea oraindik ahulagoa.

**U**da sasoiko jai gehienei agurra emoteko garaia heldu jaku. Azken batzuk bakarrik dira faltan eta, berehala, "datorren urtera arte!" agurtuko doguz jai dan-danak sentimendu gazi-gozoz. Zoritxarrez, jaietako bizipoza bat-batean iluntzen da eraso sexista baten barri dogunean. Emakumeen kontrako erasoak ez dira nagusitu azken urteetan; barriz, berauen ganeko salaketak eta arbuio soziala areagotu egin dira. Eta, horregaz batera, haserre eta nazka. Nazkatuta gagoz oraindik be jaietan errespetua eta askatasuna eskatu beharraz. Nazkatuta gagoz emakumeok errespetatzen ez gaituen gizon edo mutilakaz, auzokide zein kanpotarrakaz, ezagun zein ezezagunakaz. Nazkatuta, jarrera

## Jaietan: bizipoza eta nazka



**IRATI FERNÁNDEZ PUJANA**  
(Gizarte-hezitzailea)

matxistakaz, inpunitateagaz, konplizitate-agaz.

Ezagutuko dogu behingoz emakumea eta haren gorputza eta askatasuna menperatu gurako ez dauzen jendarterik? Jairik? Baiezkoan nago, egon beharra daukagu, baina herritar orok egin behar dogu eraldaketarako bidea, bai emakumeok bai gizonek, neska-mutielek, gurasoek, dendariak, irakasleek... benetako bardintasuna gure egunerokotasunean iltzatzeko. Bitartean, jakin eizue: iraultza honetan, jaietan emakumeok dantzan jarraituko dogu, libre izaten, eta libre izaten ixten. Bizipozez.

**Alaia**  
fruta-denda  
Etxez etxeko zerbitzua  
Bertoko produktuak  
Taller, 5  
48170 Zamudio  
94 681 05 85

**HARATEGIA**  
**ALBERTO**  
Arbolantxa, 4  
T: 94 452 08 25  
48170 ZAMUDIO

**ama**  
taberna 3  
Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)  
94 655 93 69

## Gorantzaileak mende erdia ospatuko du IV. Euskal Ezkontzarekin



*200 dantzari inguru izango ditugu Sondikan, zaharrak eta gazteak, eta 400 lagun baino gehiago bazkaltzeko*

Sondikako Gorantzaileak dantza taldeak 50 urte bete ditu aurten eta jai berezia prestatu du urriaren 7, 8 eta 9an, Euskal Ezkontzaren IV. edizioarekin uztarturik. Ostiralean, Xabi Aburruzagak kontzertua eskainiko du tren geltokiko apartekalean, 20:00etan eta 23:00etan DJ saioa izango da.

Larunbatean, 12:00etan Erraldoi eta Buruhandien kalejira izango da Bizkaiko Gaitarien musikarekin eta 19:30ean dantza taldearen 50. urteurrena ospatuko da

herriko frontoian. "Egun berezia izango da: 200 dantzari inguru izango ditugu Sondikan, zahar eta gazteen artean. Horiei guztiei musikariak eta Txuma Olague abesbatzako kantariak gehitu behar zaizkie. Jende mordoia izango da bertan" aipatzen du Izaskun Llonak, dantza taldeko zuzendariak.

Igandean Euskal Ezkontzaren laugarren edizioa ospatuko da, aurten Aresti Beheko baserriko Romualdo Aburto eta Gregoria Etxebarriaren artekoa, 1912koa.

Korteiuan eskopeteroek, gaiteroek, zanparzaharrek, senar-emazteek, gurasoek, aitite-amamek, aitabitxiek eta lekukoek, senargaien neba-arrebek, epaileak eta berauen emazteak, Bilbo eta Ameriketako osaba-izekoek, ume zaintzaileak, herriko lagunak, senargaien gonbidatuak, Txuma Olague koruko kantariak, txistulariek eta dantzariak parte hartuko dute. Idiek bi gurdi eramango dituzte, ohea eta arreorako. Desfilearen ostean, bazkaria egingo da frontoian. Bertan 400 lagun baino gehiago espero dira.

2006an Euskal Ezkontzaren lehen edizioa izan zen, 2008an bigarrena eta 2011an hirugarrena. 2016koan, Ezkontzaz gain, kontzertuak, DJ saioa, gaitariak, kale animazioa eta bestelako ikuskizunak izango dira hiru egunetan zehar Sondikako kaleetan zehar, mende erdia ez baita egunero ospatzen.

**ASADOR FUENTENE berria**  
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak  
Afariak  
Enpresa-bazkariak  
Ekitaldiak  
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:  
Okela eta arraina txingarretan erreta

LEKUNBIZAUZA 26  
ZAMUDIO (BIZKAIA)  
94 452 23 79  
www.asadorfuenteneberria.com

**AmAr**  
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:  
9:00-19:00  
Laburunbata:  
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea  
Zamudio  
94 4520419

**Carrefour**  
express

ORDUTEGIA  
Astelehenetik ostiralera arte  
9:00-14:30 / 17:00-20:30  
Larunbatean  
9:00-14:30

Pago kalea, 5  
48170 ZAMUDIO

Txinbo kalea, 9  
48170 ZAMUDIO  
94 452 26 75

**BIDE-GORRI**  
CAFE-BAR

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak  
8:00ertatik irekia  
WIFI gunea

**ERREKA ONDO ETXEA**

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80  
Zamudio 48170 (Bizkaia)  
Tfnoa: 94 452 14 19  
Faxa: 94 452 26 29

## II. Minibasket txapelketa, indartsu aurten ere

17 taldek hartu zuten parte Sondikako Minibasketeko II. edizioan, nesken 7 talde eta mutilen 10. Nesken artean Zamudio, Gorondagane eta Urdaneta talde txorieritarrak aritu ziren, eta mutilen artean Gorondagane eta Txorierrri Basket taldekoak. Horiez gain, emakumezkoen gainontzeko taldeen artean Baskonia (Gasteizko ACBko taldea) eta Donostiako Easo izan ziren. Mutilen artean, Baskonia eta Balmaseda, besteak beste.



## Sondika eta Zamudioko lorezainak, greban

Irailaren 12an, Sondika eta Zamudioko lorezainak greban hasi ziren. ELA sindikatuak adierazi duenez, euren lan baldintzak hobetzea eskatzen dute, hitzarmen propioaren bidez. Euskal sindikatuak azaldu duenez, Sondika eta Zamudioko Udalen zein Enviser enpresaren ardura falta da kausa nagusia. Greba hasi zenetik, enpresako zenbait langile Sondika eta Zamudioko eskolen aurrean izan dira pankartekin, euren egoeraren berri emanez.

ELA sindikatuak prentsa oharrean azaldu duen bezala, "langileek eskatzen dutena neurrikoa eta onargarria da enpresa zein Udalentzat. Horretarako, Madrilgo azken lan erreformen edukia alde batera utzi eta zenbait hobekuntza jasotzen duen plataforma aurkeztu dute. 2016 eta 2017 urteetarako eskatzen dena zera da: aldi baterako gaixotasunak % 100 kobratzea, asteko 35 orduko lanaldia eta toxikotasun plusa hobetzea, besteak beste. Hobekuntza horietaz gain, soldata

igoera eskatzen da 2018rako". Langileak abenduan jarri ziren harremanetan herri bietako alkateekin eta maiatzean aurkeztu zieten eskaera, bai Udalei, bai Enviser enpresari. "Hala ere, ez da borondaterik egon langileen eskubideak hitzarmenean jasotzeko", adierazi du ELAk.

Sondika eta Zamudioko Udalek greba eskubidea eta langile eta Enviser arteko hitzarmenaren aldeko errespetua adierazi dute: "Haiei dagokie akordio batera heletzea". Era berean, Sondikako Udalak langile guztien lan-eskubideak eta grebarako eskubidea errespetatzen dituela adierazi du. Egoerari irtenbidea ahalik eta lasterren ematea espero du: "Herritarrek jasaten ari diren zerbitzu falta ordaintzeko diru-kontentsazioa eskatuko dugu", azaldu du Xabier Zubiaur Sondikako alkateak.

Enviser enpresari dagokionez, euren harremanetan jarri gara baina momentura arte ez digu inolako erantzunik eman nahi izan.



"lazko partaidetza ikusita, aurten jende gehiago ikusi dugu", adierikatzen du Polentzi Soldevillak, ekitaldiko koordinatzaile eta entrenatzaileak: "Estatu mailako txapelketarik garrantzitsuenak da honako hau". 3 fase izan ziren guztira: alde aurretikoa, talde faseak eta finalak. Guztira 34 partida jokatu ziren 3 egunetan zehar, eta Udaleko ordezkariak gain, Federazioko ordezkaria den Germán Monje, klubeko presidentea eta Gorondaganeko Gurasoen Elkarteko partaidea izan ziren. "Herriaren aldetik, goraipatzea da Olako kasinoak eta Batzokiak eskaintako laguntza" eskertu du koordinatzaileak.

**BOLALEKU**  
JATETXEA

10. URTEBURDIA

Garaioltza, 1 - LEZAMA  
94 455 41 10

• Hainbat menu  
• Karfa  
• Ospakizunak  
• BOLAPARK

Jamafu  
Facebooken

**Enaitz**  
TABERNA

Ogitartekoak  
Anoak  
Plater konbinatuak

94 455 42 15  
Garaioltza, 74  
48196 Lezama

**TABERNA**  
**GAZTEDI**

Eguneko menuak  
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA  
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

## Hasi dira San Migel jaiak

Irailaren 23tik urriaren 2ra bitartean Derioko San Migel jaiak ospatuko dira. 23ko 19:00etan txosnak irekiko dira eta txupina 21:00etan izango da. Aurten ere, jaietako programazioa ekitaldiz beteta dator. Egunez, aipatzekoak dira hilaren 24an Derio Bizkaiko Batzar Nagusietan sartu zeneko 328. urteurrenaren ospakizuna (Uribe parkean) eta 'Arratsalde brasildarra'; hilaren 25ean, 12:30ean Lainomendi taldeak dantzaldia eskainiko du; 30ean Xaiborrek haurrentzako animazioa egingo du 18:00etan, eta 20:00etan sagardotan eginiko txorizoaren dastaketa izango da; 1ean, 10:30ean, Julio Garitano Futbito Txapelketa eta 14:00etan indabagan herrikoia, besteak beste. Gaez, La Noche del Fluor, Lisker, Trío Galea, Akerbeltz eta Vulkano taldeen kontzertuak izango dira.

### JAI-EGITARAUA

#### Irailak 23:

- 19:00: Txosnen zabaltze ofiziala eta konpartsa bakoitzaren zapien aurkezpena.
- 19:30: Kalejira eta deabruaren jaitsera, Batukalaren animazioarekin.
- 21:00: Jaietako pregoia eta txupina.
- 21:30: Txitxiburduntzia San Cimbrel konpartsaaren eskutik.
- 23:00: Fluor Gauaren hasiera.
- 02:35: Montaditoak.
- 03:00: Diskofesta.

#### Irailak 24:

- 10:00: Goizeko traka.
- 11:30: Lehiaketa gastronomikoak.
- 12:00: Umeentzako parkea.
- 12:30: Derio Bizkaiko batzar Nagusietan sartu zeneko 328. urteurrenaren ospakizuna, Uribe Parkean.

- 13:00: Arratsalde brasildarra.
- 14:00: Kazolen eta sarien aurkezpena.
- 15:00: Herri bazkaria eta traka extra-potentea.
- 17:00: DJ Party eta koktelak.
- 00:30: Berbena nagusia: jamaica show.
- 05:00: Diskofesta.

#### Irailak 25:

- 10:00: Goizkeo traka.
- 12:00: Txosnen zabaltzea.
- 12:30: Euskal Dantzak: Lainomendi.
- 17:00: XX. zezenketa eta konpartsen jolasak.
- 19:00: Dantzatzeoak: Trio Galera.
- 20:30: Jubiulatuetzako luntxa.

#### Irailak 29:

- 18:00: Umeentzako jolasak eta diskoteka.

#### Irailak 30:

- 10:00: Derio Outlet, komertzio guztietan.
- 18:00: Xaibor.
- 20:00: Dastaketa: Txorizoa sagardotan egina.
- 00:00: Erromeria: Akerbeltz.
- 04:00: Diskoteka.

#### Urriak 1:

- 10:00: Goizeko traka eta Derio Outlet.
- 10:30: San Migel Julio Garitano futbito txapelketa.
- 12:30: Bermut-a.
- 14:00: Indaba herri-bazkaria (4€).
- 15:00: Postrea: La Kuadrilla konpartsa.
- 16:00: Bingo berezia eta bazkalostekoa.
- 20:00: Umeen mozzorro lehiaketa.
- 21:00: Nagusien mozzorro lehiaketa.
- 00:30: Berbena: Vulkano.
- 04:30: Diskoteka.

#### Urriak 2:

- 10:00: Goizeko traka.
- 12:00: Ingurumen heziketa eta hegazti harrapakariak.
- 15:30: Jai batzordearen bazkaria.
- 17:30: Konpartsen jolasak.
- 20:00: San Migel jaietako argazkien proiektzioa.
- 21:00: Txokolatada eta jaien amaiera.



## Ohar zerbitzua, derioztarrentzat

Derio Zabaltzen App-a erabiltzen dutenek mobilerako ohar zerbitzu berria eta dohakoa estreinatu dute irailaren 6an. Zerbitzu sistema honen helburua herritarrei arreta zerbitzu hobea eskaintzea da. Horrela, Derioko biztanleek udal informazioa jaso dezakete: kirol gertaerak, kultura, ikastaroak, agenda... Gainera, erabiltzaileek herrian zehar topa daitezken matxurak edo kalteak Udalari komunikatu diezaiekete, eta geolokalizazioaren bidez tokia zehazten da. Abisua jasotakoan, Udalak intzidentziaren jarraipena monitorizatuko du webgunearen bidez.

## Zamudioko zikloturista

Zamudiok Udalak martxa zikloturista antolatu zuen herrian, irailaren 17an. Guztira, 600tik gora txirrindularik eman zuen izena saioan parte hartzeko, baina eguraldi txarra egin zuenez, azkenean bakarrik 200 aritu ziren. Bizikleta zaleek 18-20 kilometroko txangoa egin zuten Torrelarragoiti eta Ugaldeguren industriaguneetatik. Ostean, indarrak berritzeko, janaria eta edariak hartu zituzten Bidekoetxe parkean jarritako karpan. Eta bertan, hain zuzen ere, egin ziren bazkaria eta erromeria, dj Markelinen eskutik. Guztira 500 lagun ospatu zuten bizikletaren jaia.

## 1.000 kg janari 1.500 lagunentzat

Derioko Danontzat elkarteak eta Derioko Elikagaien Elkarrekin Solidarioak (DEES) 1.000 kg janari bidaliko dituzte Greziako Chios uhartera, bertako 1.500 errefuxiatu laguntzeko. "Gure betekizun nagusia pertsonen laguntzea da", azaldu du Ainhoa Olaetak, Loiuko Danontzat elkartearen kidea. "Ahal dugun heinean premiazko laguntza behar duten pertsonen laguntzen saiatzeko gara. Loiuko familia behartsuei laguntzen diegu, baina Chios-en gertatzen dena ikusita, azken orduko janariak beteriko kamioia jaso dugu, eta hori Chiosera bidaliko dugu. Han Zaporeak GKEak sukaldatu eta banatuko ditu elikagaiak", azaldu du kidea. "Ekimen honetan parte hartzen dugun hirugarren aldia da, eta Gure Señeak, Txoriberri,

Sutondoan eta eskolako Gurasoen Elkartearen bezalako Derioko elkarteekin eta zenbait boluntarioekin elkarlanean aritu gara orain arte", aldarrikatu du Jose Ramón Elorriagak, DEES-eko kidea.

Elkarrekin kolaboratzeko prest duden herritarrek janaria eraman dezakete Loiuko frontoira (Larrondo aldean dagoe-na) edota Derioko Mungialde Etorbidea 5, (behea) helbidera. "Hemendik aurrera, janari kopuru dexentea jasotzen dugun bakoitzean Chiosera bidaliko dugu bizpahiru hilabeterik behin, ahal dugun neurrian lagundu ahal izateko", argitu du Olaetak.

**Informazio gehiago:**  
[www.zaporeak-sabores.com](http://www.zaporeak-sabores.com)



**GALAISIA** Eiengabeko ordulegia  
Estetika eta ile-apaindegia  
94 453 04 85 - 94 471 10 51  
Sabino Arana 1-3, SONDIKA

**Goiri'78 s.l.**  
Zerbitzu ofiziala  
Izarza Pol.  
48150 Sondika  
Bizkaia  
94 453 25 15  
94 453 39 31

**auzoKide**  
Finken administratzailea  
**LORENA GAMBOA AGUIRRE**  
Txorisolo 4, behe B  
48150 SONDIKA  
634 410 470  
auzokidefincas@gmail.com

**IRATXO**  
gozotegia  
tarta personalizatua  
trufak  
tarta  
pastelak  
panak  
Mikel Zarate, 2 - 3. larrea • Sondika, 48130 • 94 443 09 19

**HORTZ - KLINIKA**  
Jasone Azurmendi Garai  
Pakearen Plaza, 1 - 1º A  
DERIO  
Telefonoa: 944 543 709

**Altzari**  
EBANISTERIA • CARPINTERIA, S.L.  
Zureko lanetan espezialistak  
Alain Pomposo Zarate  
946 740 141  
663 209 209  
www.altzari.com  
altzari@altzari.com  
Lulsene, 2 - Belako Elkarte, mod. 203-2 - 48100 MUNGIA



# Urriko azokak Larrabetzu eta Lezaman



Urriaren 14an, 21ean, 23an eta 27an 'Larrabetzuko Bertoko Produktuen XVIII. Azoka' prestatu du Gurbide Elkarteak. 18. edizio honetan, 'Lurra, Lana, Jana' ekimena aditzera eman nahi du eta ekitaldi bereziak egongo dira hiru egun horietan zehar.

Hilaren 14an, emakume baserritarren topaketa antolatu dute. Bertan, emakume baserritarrak izan duen, daukan eta izan beharko lukeen rola eztabaidatuko dute. Mahai ingurua izango da, sindikal-gintzan eta aktibismoan trebatutako emakume baserritarrek gidatua. Hilaren 21ean, *Gure Leihotik* bideoa aurkeztuko da, baserritarren lanaren nolakotasuna

plazartzeko, Larrabetzuko bertako base-rritarren testigantzekin. 30 minutuko bideoaren ostean, bertso afari agroekologikoa egingo da, Itallen bertso eskolak antolatuta. Urriaren 23an, azoka egingo da, bai Larrabetzuko bai kanpoko gonbidatuen hainbat produktuekin. Azokan zehar, Gurbidek umeentzako landaketa tailerra eta bestelako ekitaldiak prestatu ditu, Larrabetzuko talogileen produktuak, besteak beste.

Azokari amaiera emateko, hilaren 27an *Trashumantzia Urbiatik Getxora* bideoa proiektatuko da, Fredy Paiaren eskutik.

Bestalde, urriaren 15ean Lezama De-non Artean azokaren bigarren edizioa egingo da, Udala eta Lezama Saretzen Elkartearen eskutik. Gainera, auto eta moto klasikoen erakusketa egongo da herriko plazan. Egun osoko azoka hau udaletxe atzeko eta alboetako kaleetan egingo da. 11:00etatik 15:00ak arte nekazaritza azoka izango da, eta tartean herri bazkaria prestatu dute antolatzaileek. Tiketak 12 eurotan daude salgai, Saretzen elkartearen komertzioetan.

Eguerditik aurrera bestelako jarduerak antolatuko dira, eta 18:00etan berbera izango da Lotxo taldearen eskutik. Arratsaldean zehar, cocktail bereziak banatuko dira herriko tabernetan.



## Zenbait aldaketa, Bizkaibusen

Bizkaiko Garraio, Mugikortasun eta Lurralde Kohesiorako Foru diputatuak, Vicente Reyesek, iragarri du Leioa Urdulizeko ospitalearekin lotuko duen Bizkaibus linea ez dela Erandio Goikoatik irtengo, Leioatik baizik. "Hasiera batean, Erandio Goikoatik irteteko zen, bertako biztanleak Uribe Kostako ospitalean harpidetuta zeudelako, baina Gurutzetako osasun zentrorra joaten jarraitzen dutenez, ez dauka zentzurik autobusa Erandiotik irte-tea", adierazi du Reyesek. "Erandio Goikoan etenaldia egitearen arrazoi bakarra Leioarekin komunikatzea litzateke, baina horretarako badago Larrabetzu - Areeta linea, orduroko frekuentziaduna", gehitu du.

Diputatuak, autobus linea honen erabilgarritasunaz aritzean, abuztuan Erandio Goikoan igotako eta Leioan jaitsitako pertsona kopuruaren batz bestekoa 1.4 dela adierazi du. "Datu horien arabera, ez dago zerbitzu hau handitzearen beharrik", laburbildu du departamentuko titularrak.

**LARRABETZU**  
☎ 94455 81 97  
**LOROÑO BEHEKOA (BIZKAIA)**

**FRUTAK BARAZKIAK**  
Produktu ekologikoak  
Hainbat ogi eta pastel  
Gaztelumendi, 3 - behea | 48195 Larrabetzu | 94 455 89 19

**Pelukeria Estetiko**  
94 455 81 44  
Anguleri 2, behea Larrabetzu-Bizkaia

**TURREGOTTI JATETXEA**  
Laurieta etorbidea, 27  
48180 Lolu-Bizkaia  
T-Faxo: 94 453 24 40  
restaurantourtegoti.com

**elekma**  
LARRAZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRIAK  
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXIKIAK  
Lahenergo markak • Phezirik onenak  
**BOSCH, SIEMENS, BALAY**  
Tasarien sartutadak, 25:07n • 48180 Lolu  
T: 944 539 232  
www.elekma.es

Indartsu heldu dira Lezamako Gailur Mendi taldekoak euren 25. urteurrenera. Ospakizun hilabetea iraila izan arren, urte osoa daramatzate elkarrearen mende lau-rdena ospatzen eta ekitaldi bereziak prestatzen. Iraila hilabete garrantzitsuena izan da, eta Gailur Eguziaz gain, *Himalaya, beste begirada bat* bideoa proiektatu zuten herriko Kultur Aretoan, bestelako sorpresez gain.

1991. urteko irailean, lagun mendizale batzuek Lezamako Gailur Mendi taldea sortzea erabaki zuten Andra Mari eta Gurutzetako jaietan. Helburua argi zeukaten: "Lezamarrei laguntzea, mendizale-tasuna garatuz, eta mendiarekin loturiko ekimenen bidez herriko sustraiak aldarrikatzea", horrela aldarrikatzen du Mikel Zarate elkarteko kideak.

Irailaren 23an, Himalaya, beste begirada bat bideoa proiektatu zen, elkarteko kideek Pakistan eta Nepalera eginiko bidaietan bizi izandako esperientziak kontatzen dituen ikus-entzunezko pieza. Gailurreko kideek eurek grabatu eta editaturik, bidaiari nondik norakoak azaltzen ditu bideoak: "Euren esperientzia modu hurbilean kontatzen duen bideo polita da", azaltzen du Zaratek. 24an Gailur Eguziaz ofiziala ospatu zen, eta elkarteak eginiko lehenengo irteera berregin zen goizetik, hots, Lezamako iturrien ibilbidea. Eguerdian, elkarte duela 25 urte sortu zuten kideei omenaldia egin zitzaizen eta Gurutzetako Dantza Taldearen zein Ekidazu abesbatzaren laguntza izan zuten. "Helburu nagusia Lezamako plaza elkargune bihurtzea izan da, jan eta edaten genuen bitartean solasaldiak egiten", azaltzen du Mikelek.

#### Bertako partaideak

Elkartea sortu zenean, kide gehienak lezamarrak ziren: "Baina denborak aurrera egin ahala, kanpoko bazkide berriak etortzen hasi ziren, kideen lagunak batez ere" azaltzen du Mikelek: "Mungialde, Algorta,

# Sustraietara bueltan

## Lezamako Gailur Mendi taldeak 25. urteurrena ospatu du iralean



*Irailaren 26tik aurrera,  
argazki lehiaketako  
irudirik onenak ikusgai  
izango dira Lezaman*

Bilbo eta Donostiako bazkideak dauzugu. Eskertzekoa, baina sustraietara bueltatu behar gara" azaltzen du kideak. Lezamako jendea erakartzearen, Gailurrek, Lezamako eskolako guraso elkartearekin batera Lezamako Eskolako Mendi Taldea osatu dute, eta bertan 35-40 ume inguru daude: "Irteera bakoitzean 50-60 pertsona inguru bermatzen ditugu, eta eskertzekoa da hori", argitzen du Zaratek: "Duela urte batzuk bazkide lezamarren kopurua nabari jaitsi bazen ere, gaur

egun gehiengoa bertakoak direla aitortu behar da".

Urteari hiru hilabete baino ez zaizkio falta, eta urriari begira, 26tik aurrera, argazki lehiaketako argazki onenak ikusgai egongo dira Grisson tabernan eta Oxangoiti Kultur Elkartean antolatuko den erakusketan. Gainera, Gailurrek orientazio ikastaroa antolatu du hilaren 29an eta 30ean, alde teorikoa eta praktikoa izango dituen.

Taldeko zenbait kide Akonkagua eta Himalayan izan dira, besteak beste. "Hala ere, hemengo inguruak ezagutzea berebizikoa da, aukera izugarriak ematen baitizkigu" azaltzen du Zaratek. Lehen laurdena bete berri duelarik, Gailurren hurrengo pausoa bertako sustraiak sendotzea, partaidetza handitzea eta belaualdi erreleboa sendotzea da, mende erdira heltzen direnerako erronka interesgarria.

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

**Zamudion**

Elkarte Teknologikoa, 105.  
T.94 431 71 36  
E.zam@cianoplan.es

**cianoplan**  
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763  
www.cianoplan.es



## Idia Aurrekoetxea Torrealdei | eskulangile eboluzionatua

Durangoko Azokako Argizaiola sarien sortzailea denak, 26 urte baino gehiago daramatza egurren artean. 1990ean San Inazioz tailerra ireki bazuen ere, etxe aurreko txabola eraberritu ostean, bertan ezarri zuen tailer propioa (argazkia). Ikastaroak ematen eta enkargu propioak eginez bizi izan da, bai partikularrentzat eta baita instituzioentzat ere: "Zirriborroetatik hasita azken emaitza arte, lan hau oso aberasgarria da". Enkargu gehienak euskal tradizioaren ingurukoak dira: armarriak, lauburuak... "Luxuzko artikulu hauen munduan, betiko eskakizunez gain, eboluzionatu behar dugu; XXI. mendean gaude eta gauza berriak egin behar dira".

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti  
[www.jongoikouria.com](http://www.jongoikouria.com)

ziurtagiriaren **elkartea**   
baieuskarari.org

**Bai Euskarari Ziurtagiria,**  
alor sozioekonomikoaren euskalduntzean eragiten

urrats biziak 

 /baieuskarariziurtagiria  @baieuskarari  www.baisarean.org



# “Euskalduna izatea gozamina da”

KARMELO AYESTA | euskalduna

Berbalagun egitasmoak gogo handiz ekin dio ikasturte berriari. Betiko ekitaldiez gain, Karmelo Ayestaren hitzaldia antolatu du urriaren 13rako, Derioko Kultur Birikan, 19:00etan. Karmelok *Goza daiteke gehiago: Euskaldun baten hizkuntza-bidaia* liburua idatzi zuen 2014an eta hitzaldian bere eskarmentuaren berri emango du. Aukera ona “euskara sarriago erabili nahi dutenentzat eta euskararen erabilera-mailaz kezkatuta gaudenontzat”.

t: Gaizka Eguzkitza

## Nondik norakoa izango da Derion emango duzun hitzaldia?

Unibertsitatean nenbilela, euskalduna izatea erabaki nuen. Urte asko joan dira harrezkero, eta hitzaldian azalduko dut bidaia horretan eskarmentuz ikasitakoa. Saiatuko naiz frogatzen euskararen erabilera erraz areagotu dezakegula, hori nahi izanez gero. Hitzaldiak hiru zati ditu: lehenean, motibazioari eta printzipioei buruz hitz egingo dut, motibazioa baita bidaian arrakasta izateko gakoa; bigarrenean, hizkuntza bidaia nola egin daitekeen azalduko dut; eta hirugarren zatian, bidean topatu ditudan oztopoen inguruan arituko naiz.

## Nori zuzenduta dago hitzaldia?

Hitzaldia egokia da euskara sarriago erabili nahi duen edozein pertsonarentzat eta euskararen erabilera-mailaz kezkatuta gaudenontzat.

## 2014an *Goza daiteke gehiago: Euskaldun baten hizkuntza-bidaia* liburua idatzi zenuen. Zergatik diozu gehiago goza daitekeela?

Izenburuan, gozatu aditza bi esanahi ditu. Lehena “erabili” da. Batzuek uste dute euskararen erabilerak goia jo duela, edo, beste modu batean esanda, egungo egoera soziolinguistikoak ezinezko egiten duela



euskara maizago erabiltzea. Kontrakoa erakutsi nahi izan dut liburuan. Nire iritziz, zalantza barik, gehiago erabili daiteke euskara (nahi badugu, noski). Bigarren adiera “ondo pasa, disfrutatu” da. Sarri lotu da euskara bihozminarekin, nahigabearekin edo nekearekin. Askok, ostera, gozatu egiten dugu euskararekin; eta konbentzituta nago euskara gozamenarekin eta emozio positiboekin lotzea dela erabilera areagotzeko bidea.

## Zein izan da zure bidaia? Nolakoa izan da?

Antzeko bidaia egin dugu nire belaunaldiko euskaldun askok. Senitarte euskaldunetan jaio nintzen, baina, ezagueran sartu aurretik, galdua nuen euskaraz berba egiteko gaitasuna. Francoren garaia zen eta askok galdu genuen euskara orduan. Unibertsitatean nenbilela erabaki nuen euskara ikastea eta, alfabetatu ostean, EGA ateratu nuen. Orduetik, euskal hiztun komunitatean murgildu naiz, eta hizkuntza-ohitura asko aldatu ditut, apurka-apurka: gurasoekin, emaztearekin, anaiekin, lagunekin... Oraindik ere hizkuntza bidaiak aurrera jarraitzen du eta urte askoan, espero dut.

## Zergatik animatu zinen liburu bat idaztera?

Liburua argitaratzea ustekabea izan zen. Idazlanak egiten hasi nin-

## Karmeloren ENA

Karmelo 1963an jaio zen Zeberion, baina azken 43 urteotan Arrigorriagan bizi izan da. Ingeniari industrialia da eta automobilgintzako enpresatan aritu da lanean. Askotan, atzerrian. Hala ere, Karmeloren hitzaldiak ez du bere lanarekin zerikusi handirik.

tzen, bi asmo nagusirekin: alde batetik, euskararen gaineko ideiak argitu nahi nituen eta ingurukoei (senideei eta lagunei) azaldu nahi nien eskarmentuz ikasitakoa, eta, beste aldetik, euskara landu nahi nuen. Lagunek animatu ninduten idazlanak argitaratzera, eta hortik sortu zen liburua.

**Euskararen erabileraren inguruko aurreiritzi asko utzi dituzu bertan behera. Adibidez?**

Bai, aurreiritzi asko gezur borobilak direla ikasi dut. Esate baterako, pertsona batzuei erdaraz egin diet euren itxuragatik, baina ez larruzalaren koloreak, ez itxurak ez dute pertsonaren hizkuntza determinatzen. Beste adibide bat: askotan pentsatzen da erdaraz egiten duenarekin erdara erabili behar dela, edukazioa edo jendetasuna erakusteko; baina lagun batzuek sano eskertu didate eurekin euskara erabiltzen hastea eta konturatu naiz, ordura arte, baztertu egin ditudala gura barik, euskara ukatuta.

**Zaila da euskalduna izatea? Euskaraz bizi izateko erabakia norberarena da ala mugitzen zaren inguruaren araberakoa da?**

Euskalduna izatea gozamina da. Egia da hori lortzeko, hau da, euskara erabiltzeko, euskara landu egin behar dela, baina beste edozein gaitasun garatzeak ere esfortzua eskatzen du. Lan hori gozamina izan daiteke edo, bestela, sufrika-

ria: hori norberak erabakitzen du. Zaila, edo batzuetan ezinezkoa da euskara edonon eta edonoz erabiltzea. Euskararen erabileran sano eragiten du inguruak, baina ez du norberaren hizkuntz portaera determinatzen. Gure herrian, esate baterako, euskaldun batzuk euskaraz bizi dira gehienbat; beste batzuek euskara erabiltzen dute sarri; eta badira euskara ia inoiz erabiltzen ez duten euskaldun asko. Ingurua bera da, baina norberaren erabakia ez.

**Gomendiorik, euskaraz gehiago gozatzeko?**

Bai, bi gomendio ditut: lehena, beldurra, lotsa, agresibitatea, eta beste emozio negatibo batzuk alde batera utzi, eta ilusioz, enpatiaz, eta konfiantzaz aritzea; bigarrena, ez izan huts egiteko beldurrik, huts egitea ikasteko bide bakarra baita.

**Zelan ikusten duzu euskararen etorkizuna?**

Euskararen etorkizuna, hau da, euskal hiztun-komunitatearen etorkizuna, ez dago erabakita. Neurri batean, geuk erabakitzen dugu egunero, gure esku dago. Oraintsu ikusi dut, Eusko Jaurlaritzak eginitako ikerketa batean, EAEko biztanleen % 87 dagoela ados esaldi honekin: "Garrantzia du euskaldunek nahi duten lekuetan euskara erabiltzeko aukera izateak". Askok falta da garrantzitsua den hori errealitate egiteko, baina nire inguruan, behintzat, aurrera goaz. Nik erdara hutsean ikasi nuen; semeak, D ereduan. Nire lagun-kuadrillan euskaldun oso gutxi zegoen; semearen kuadrillan, oster, ia guztiak dira euskaraz hitz egiteko gauza. Nire gaztaroan, aitonek eta amonek euskaraz hitz egiten zuten gehien; orain, berriz, umeak eta gazteak dira euskara sarri erabiltzen dutenak... Arrazoi asko daude baikorrak izateko, baina oraindik jokabide eta gizarte-arau inplizitu asko aldatu behar dira erdal eta euskal hitzunei hizkuntz eskubide eta aukera berak bermatzeko.

*"Euskararen erabilera erraz areagotu dezakegu, hori nahi izanez gero"*

*"Euskararen etorkizuna ez dago erabakita. Neurri batean, gure esku dago"*



astikenemotor  
www.ASTIKENEMOTOR.com  
DERIO - 946 451 781



**BIZKARGI**  
TABERNA ETA JANARIA  
Urkiola, 6 DERIO 944541655



**ELORRIETA**  
INSTALACIONES  
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA  
Urbe kalea, 12 behea Derio 48160  
94 454 03 86  
639 57 98 48 - 639 58 25 47



**MARMOLGINTZA**  
**GOYO**  
SURALDE-GAINEKOAK ORRAK HILERRIAK  
Ugaldoguren 1 ind. 18-B nabea  
48160 Derio, Bizkain  
T.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63



**KAFETEGIA**  
**IAZI**  
**JATETXEA**  
Jata kalea, 2 - DERIO  
Tel.: 944 54 29 56



**HARAGITEGIA**  
**URDATITEGIA**  
**IMAZ**  
MUNGIALDE ETORBIDEA,2  
TLFNOA: 94 454 10 75  
DERIO  
Eskerrik asko etortzeagaitik

t/a: Gaizka Eguzkitza

“Ingelesa eta, oro har, hizkuntzak beti gustatu zaizkit. Insitututan nengoela beka bat lortu nuen Ingalaterran, hilabete batean ingelesa ikasteko. Beste behin ere, Ingalaterran pasatu nuen uda, kanpin batean zerbitzari lan egiten. Esperientzia politak izan ziren eta horregatik erabaki nuen Ingeles Filologia ikastea”, argudiatu du Lorenak. Derioztarrak Deustun ikasi zuen karrera eta bukatutakoan, Estatu Batuetara joan zen. “Linguistika Masterra egitera joan nintzen Ohio State unibertsitate, Columbus hirira. Hasiera batean, urte biko esperientzia izan behar zen, baina hemen krisialdi bortitza zegoenez, Estatu Batuetan gelditzea eta bertan doktoretza bukatzea erabaki nuen”.

Ohio ez da Estatu Batuetako lekurik xarmargarriena, baina Lorenak ez zuen inondik inora interes turistikoarengatik aukeratu. “Eskaera batzuk egin nituen laupabost unibertsitatean, eta interesgarriena Columbusena iruditu zitzaidan. Ohio State unibertsitatea herriko handienetarikoa da, izan ere, guztira 60.000 ikasle baitaude bertan. Era berean, publikoak direnen artean, onenetarikoa da Estatu Batuetan eta dirutza inbertitzen dute ikerketan. Gainera, lan eta diru-baldintza onak eskaini zizkidaten eta Linguistika saila oso indartsua da”.

Gazte derioztarrak unibertsitatearen inguruan ematen du denbora gehiena. “Unibertsitatean bizi naiz bizikide batekin, bizitza garestia delako. Unibertsitatea herri bat bezalakoa da, Derio baino handiagoa: autobusak daude barrutik mugitzeko, dendak daude, tabernak... Urbanizazio berean nire departamentuko asko bizi dira, Ohio koadrila, nolabait esanda (kar, kar)”. Lorenaren lagunaren artean denetarik dago: hegoamerikakoak, espainarrak eta euskaldun batzuk ere bai. Haien artean Larrabetzuko bat ere bai.

***“Amerikarrek lan egitea dute helburu bakarra bizitzan, eta guk, aldiz, bizi ahal izateko egiten dugu lan”***

# Ohiotik ikasten euskara

LORENA SAINZ-MAZA | hizkuntzalaria, Estatu Batuetan

Lorena gazte derioztarrak 26 urte ditu. Unibertsitatean Ingeles Filologia ikasi zuen eta ondoren, master bat Estatu Batuetan ikasteko aukera sortu zitzaion. Eta oraindik bertan dabil, tesia egiten. Familia izugarri faltan bota arren, ez du uste etorkizunean etxetik gertu lan egiteko aukerarik izango duenik.



Estatubatuar batzuk ere badira bere lagunak, baina, Lorenaren hitzetan, pentsaera eta bizimodua erabat ezberdinak dira. “Telebistan ikusten dena askotan bada egia. Esate baterako, han gazte-gazte ezkontzen dira, 20-25 urterekin. Bestetik, amerikarrek lan egitea dute helburu bakarra bizitzan, eta euskaldunok, aldiz, bizi ahal izateko egiten dugu lan”. Hala ere, Lorena ez da Ameriketako bizimodura erabat egokitu. “Adibidez, Euskal Herriko ordutegiaren arabera jaten dut eta nik neuk egiten dut janaria, eurek egiten ez dutena”.

## Galdegaiaren garrantzia

Lorena erabat murgilduta dago lanean, bere tesian. “Linguistikaren adarretako bat ikasten dut, sintaxia, hau da, egitu-

rak eta hitzen ordena. Nire tesian euskara, Euskal Herriko gaztelania eta Estatu espainiarreko gaztelania ikertzen ditut, hitz ordenen aldaketek esanguran duten eragina aztertzeko. Oso gutxi ikertu da horren inguruan. Adibidez, euskaraz galdegaia aditzaren aurrean jartzen da, baina nik erakutsi nahi dut horrela ez dela beti izan behar. Hitz ordenak eta testuinguruak eragina daukate guk eman nahi dugun mezuan, eta horixe interesatzen zait”.

Lorena pozik dabil Ameriketean. “Esperientzia itzela da Estatu Batuetan, etxetik kanpo, bizi ahal izatea. Ingelesa ikasi dut, izugarri hazi naiz... Onena da ikasleek Unibertsitatean dituzten aukerak. Euskal Herrian, aldiz, beka gutxi daude, ikertzeko aukerarik ez... Gauzarik txarrenari dago-kionez, aldiz, janaria ez da batere osasun-

# ren sintaxia

*“Lanak eramaten nauen lekura joango naiz, eta zoritxarrez, etxetik urrun egongo da ziur asko”*

tsua, edozeinek eraman dezake arma bat... Baina batez ere medikuntza pribatua. Triste da, baina hemen ezin da dirurik gabe bizi”.

Lorenak 21 urte zituela egin zuen alde etxetik eta gogor egin zitzaion. “Gara hartan, poz-pezik joan nintzen Estatu Batuetara, independente bizi nahi nuelako, baina denboraren poderioz, izugarri kostatzen zait, oporren ostean, Estatu Batuetara itzuli behar dudak bakoitzean. Batetik, hiria ez delako erakargarria eta hara lan egitera joaten naizelako; eta bestetik, hemen oso gustura nagoelako: gurasoak pozik daude, lagunekin nabil... Familia asko botatzen dut faltan: etxeko janaria, iloba txikia...”

Lorenak beste urtebete bat emango du behintzat Estatu Batuetan, baina hurrezkero ez daki zer egingo duen. “Orain hasiko naiz Estatu Batuetan lana bilatzen, unibertsitatearen batean irakasle aritzeko. Korapilatsua da, batetik, epeak daudela-



ko; eta bestetik, txosten potolo bat presatatu behar dudalako nire lanaren berri emateko eta nire merituak azaltzeko. Eskatzeko aukera izango banu, bero egiten duen lekuren batera joatea gustatuko litzaidake, Ohioko neguak oso gogorrik direlako. Kaliforniara, esate baterako. New York edo Chicago bezalako hiri handi batera ere ondo legoke. Leku kosmopolitago batera joan nahiko nuke”.

Baina ez da hori aukera bakarra. “Europara ere etorri ahal naiz. Familiarengan-

dik gertuago egongo nintzateke. Doktorego ondoko ikastaroak leku askotan daude, batez ere iparraldean, Alemanian, Norwegian, Belgikan... Ingalaterran ere bada- go irakasle aritzeko aukeraren bat. Dena dela, lekua berdina dit. Tesia bukatu eta ahalik eta lasterren hasi nahi dut lanean. Gustatuko litzaidake Deustuko Unibertsitateko irakaslea izatea, baina hori ia ezinezkoa da. Lanak eramaten nauen lekura joango naiz, eta zoritxarrez, etxetik urrun egongo da ziur asko”.



Uhartzegia Ibañeta Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net  
48100 - DEFRIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



## ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

### FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produktzioaren Programazio goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

### SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

### ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetakoko goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

### MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria  
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

# Idea on bat izatea ez da aski zeure enpresa sortzeko

Negozio-idea argi bat edukitzea enpresa-abenturari ekiteko lehen urratsa da. Baina, egia esateko, idea on bat izatea ez da nahikoa zeure enpresa sortzeko, finkatzeko eta handitzeko. Horretarako, Egaz Txorierri daukazu.

Nola mamitu zeure proiektua?

Hitz egin **egazekin**

**Enpresak sortzeko zerbitzu integrala**

- 1 Ideiaren analisisa
- 2 Aholkularitza pertsonalizatua
- 3 Enpresa-plana
- 4 Enpresa-prestakuntza
- 5 Lehen tasuneko finantzaketa
- 6 Laguntzak eta diru-laguntzak
- 7 Enpresa-haztegiak
- 8 Jarraipena eta sendotzea

EGAZ TXORIERRI  
Tel: 944 536 370 • Fax: 944 531 344 • egaz@txorierri.eu  
www.txorierri.eu



Negozio-idea ondo zehaztu ostean, ezinbestekoa da merkatu-azterlan bat egitea, zure proiektua teknikoki eta ekonomikoki bideragarria den ziurtatzeko. Ildo horretatik, negozio-plana osatzea eta prestakuntza sakontzea oso baliagarri izango zaizu, eta horrek erabakiak hartzen lagunduko dizu. Zeure enpresa sortzeko, hainbat eta hainbat izapide eta baldintza bete beharko dituzu: finantzaketa lortu, laguntzak eta diru-laguntzak eskatu, kokalekua bilatu... Enpresa sortuta duzunean, eguneroko lanari ekin beharko diozu: merkatuan irauteko erronkari aurre egin eta zure enpresa sendotu eta handitu.

Baduzu negozio-ideiaren bat? Zeure negozioari, zeure enpresari ekin nahi diozu? Konta iezaguzu. EGAZ Txorierri prozesu osoan lagunduko dizu, zure ideia osatu eta mamitzeko. Guk Enpresak Sortzeko Zerbitzu Integrala ematen diegu doan enpresa-proiektu bat abian jarri

nahi duten pertsona guztiei. Zerbitzu horrek hauek eskaintzen ditu:

**Informazioa + Aholkularitza + Prestakuntza + Sorkuntza + Finantzaketa + Kokalekua + Sendotzea**

Enpresak Sortzeko Zerbitzu integral eta doakoaren bitartez, Egaz Txorierri 15 urtetik gora darama eskualdean enpresak sortzeko laguntza ematen. Horretarako, ideien bat duten pertsonen euren enpresa-proiektua abiatzeko fase guztietan laguntzen die, aholku pertsonalizatua emanez eta proiektua martxan jarri eta sendotzeko beharrezko tresnak eta gaitasunak eskura jarri. Kasurako, Ander Bilbaorekin eta haren negozio-ideiarekin gauzatu genuen prozesu horixe bera, eta orain errealitate bihurtu da haren proiektua: MUPSIC, musika-prestakuntza eta -garapenerako zentroa.





Ganburu, 5 • 48160 Derio  
Tel. 635 759 631  
contacto@mupsic.com  
www.mupsic.com

Arrakasta lortzeko, aski da osagai gutxi batzuekin: talentua, amorerik ez ematea, koherentzia eta grina, izugarritzko grina. Ander Bilbaorekin goiz bat igaro ostean, ez daukagu zalantzarik: Mupsic gelditzeko etorri da. Haren sortzaileak sobera du osagai bakoitzetik.

Ander 15 urte zituela hasi zen musikan. Berandu, baina gogotik ekin zion: zortzi orduko entseguak, ordura arte garatu ez zuen gaitasun bat bereganatzeko xedez. Gainera, musikari iaioekin batera trebatu zen, euskal jazzaren bi handien tartean: Kike Mora eta Carlos Velasco. Zenbait taldetako kidea ere izan zen eta Espainia osotik biran ibili zen. Musikatik gehiago lortu nahi zuen, ordea: besteei musika sentiaraztea.

Anderrek Derion dauka musika-prestakuntza eta -garapenerako zentroa. Bertan, bere grina nagusi biak bateratu ditu: musika eta giza jokabidea. Han, jotzen irakasten ez ezik, musika ulertzen eta interpretatzen ere laguntzen du. Mupsiceko metodologia ikaskuntzaren psikologian oinarritzen da. Anderrek dionez, norberak modu jakin batean entzun eta interpretatzen du musika. Horregatik, gutiz okerra da

## Mupsic, musika ikasteko eta sentitzeko gozatuz

*Bakoitzak modu batean interpretatzen du. Ez da zuzena pentsatzea ez garela musikarako gai*

norbaitek musikarako ez duela balio pentsatzea. Zentroan, gainera, ikasleak lehen egunetik bertatik hasten dira gitarrarekin: lehenengo jo eta gero ikasi, talentua mugatzen duten eskema arautuen kontrara.

Mupsiceko ikasgeletan denetarikojendea dago: oso ondo jotzen dakiten eta teknika hobetu nahi dutenak eta inolako ezagutzarik gabe hasten direnak. Horrenbestez, musika-prestakuntza eta -garapenerako zentro hori pertsona bakoitzari eta norberaren behar espezifikoiei egokitzen zaie.

Mupsic proiektua gauzatzeko, familiaren babesaz gain, Anderrek aliatu ezin hobea topatu zuen: Egaz Txorierriren Enpresak Sortzeko Zerbitzua. Han jaso zuen aholku pertsonalatuari esker, bere ideia bideragarria zen aztertu ahal izan zuen negozio-planaren bitartez, ezinbestekoa baita hori edozein proiektu martxan jartzeko. Horrez gain, negozioari ekiteko gaitasunak hobetzeko prestakuntza jaso zuen, eta laguntzak nahiz diru-laguntzak eskuratzeko modua lortu.

Handik urtebetera, Mupsic errealtate bihurtu da, eta hazi eta hazi ari da. Beste profesional bi batu zaizkio diziplina askoko taldeari: musika-pedagogoa bat eta pianista klasiko bat. Horrela, zentroaren trebakuntza aberastu da, eta eskaintza areagotu: gitarra akustikoa eta espainiarra, piano- eta kantu-eskolak, eta hiru urtetik gorako haurrentzako musika-prestakuntza goiztiarra.

# “Geure ADNan daukagu euskaraz hitz egitea”

IGOR ELORDUI | AEK-ko prentsa arduradun ohia

Saltzaileek produktuak edo zerbitzuak saltzen dituzten bitartean, Igor Elordui jendea euskaraz kontagiatzeaz arduratzen da. AEKko prentsa arduradun ohiak makina bat esperientzia ahaztezin bizi izan ditu eta Iribar edo Martxelo Otamendi bezalako jende xeblebre mordo eza-gutu du bidean. Erromoko gatikarrak 10 urte daramatza Larrabetzun, eta euskara kromosometan darama.

*t/a: Jon Goikouria Larrabeiti*

## **Zein ‘arduratan’ dabil Igor Elordui gaur egun?**

Prentsa arduradun bezala 12 urte eman ostean, etxera heltzean lanean pentsatzen negoen beti eta familiarekin egoteko astirik ez neukan. Beraz, jardunaldi murrizketa eskatu eta momentu honetan nire ‘ardura’ nagusia alaba da. Kazetaria izanik gustora nengoen, eta era honetako erabakiak hartzea ez da batere erraza. Baina tira, 12 urte ondoren beste-lako lanak egiteko gogoia neukan.

## **Zer nolako eskarmentua duzu?**

Kazetaritza ikasketak egin nituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta AEKn prentsa arduradun bezala lan egiten hasi baino lehen, 18 urte izanda, euskara klaseak ematen nituen bertan. Eskarmentua neukalako eskaini zidaten lan hau.

## **Zelakoa da euskal komunikabide baten prentsa arduradunaren lanegun normala?**

Egunaren arabera. Eguneroko prentsa eta kanpotik datorkigun euskarari buruzko informazioa begiratzea eta hori

*“Batzuetan, dirulaguntzak ematen dira euskaraz argitaratzeagatik, eta horrek ez digu inolako mesederik egiten”*

guzti hori bideratzea, publizitatearekin loturiko kontuak burutu, AEKko matrikulazioa kontuak antolatu eta, batez ere, Korrika.

## **Korrika antolatzeak sekulako erroka izan behar du**

Bai, noski. Dakizunez, bi urtetik behin antolatzen da eta horren atzean sekulako lana dago. Horregatik ospatzen da maiztasun horrekin: urtero egitea ezinezkoa litzatekeelako. Zuzendaritzako kide moduan lan egin dut eta batzordean parte hartu behar izan dut ere. Korrika bukatzen denean, balorazio tartea egiten dugu, uda baino lehen. Udan oporrak hartzen ditugu eta bueltan hurrengo edizio-ko antolaketan murgiltzen gara, urrian. Lan neketsua da, bai barrutik eta bai kanpotik ere. Hala ere, lan polita eta aberasgarria da.

## **Zelako egoera bizi du euskarak kalean eta hedabideetan?**

Asko dago egiteko oraindik. Benetako apostua egin behar da administrazioan, ezagutzetik erabiltera, hain zuzen ere. Nire ustez horrelaxe helduko gara gure



hizkuntzaren unibertsalizaziora. Garai batean, umeen hizkuntzarekiko apostua egin zen eta euskararen aldeko ekimenak egiteko oinarri sendoa zegoen. Gauzak ondo egin ziren, gaur egun umeak D erduan matrikulatzeko aukera hor dauka-gulako. Nork ez du nahi bere seme-alaba euskeraz matrikulatzea? Helduen euskalduntze prozesuan antzeko gauza gertatu ohi da: laguntza ekonomikoak daude, AEKkoak euskaltegiak berak kudeatzen ditu eta herriaren arabera dirulaguntza handiagoa edo txikiagoa da. Baina benetako apostua egitea falta da: jendeak euskaraz ikasteaz gain, erabili egin behar du.

Komunikabideetan apostu hori ez da egin, nire ustez: ETB1 eta ETB2 daukagu, eta ETB3 haurrentzat. ETB1en programa onak daude: dantzak, pilota eta Gag sket-

*“Korrika urtero ospatzea ezinezkoa da. Bukatu bezain pronto hurrengo edizioa prestatzen hasten gara”*



## Konekta zaitez gurekin!



 **Facebook:**  
aikor.txorierrikoaldizkaria

 **Twitter:**  
@AikorTxorierri

 **Webgunea:**  
www.aikor.com



chak. ETB2k, dirulaguntza handiagokoak, ordea, *El Conquistador del Fin de Mundo*, *Chimborazo*, *Tu al Norte y yo al Sur*, *western*-ak... eskaintzen dizkigu. Oso kafkianoa da. ETB1en *Aitaren Etxea* telesaila izan genuen, kalitate izugarrikoa, baina kostu altuko programa zenez, emititzeari utzi zioten. Aurrerago ETB2n ematea planteatu zuten, gazteleraz. Zergatik ez euskaraz emititu gaztelerazko azpigituluakin? Bada, Greziako telebista kate batek erosi du eta euskaraz emititzen ari da, azpigitulu grekoekin. Greziarrei antza ez zaie kostatzen telesaila euskaraz entzutea, baina euskal herritarrei bai. Zergatik ETB2n ez dituzte euskarazko edukiak azpigituluakin emititzen? Interneteko film asko ingelesez ikusten ditugu. Zergatik ez euskaraz?

#### **Zein izan daiteke arrazoia?**

Azken batean dirulaguntza kontua da. Euskal komunikabideek jasotzen dituzten dirulaguntzak, bestelako komunikabideek jasotzen dituztenekin alderatuta, oso urriak dira. Batzutan, dirulaguntzak ematen dira noizean behin euskaraz argitaratzeagatik, eta horrek ez digu inolako mesederik egiten. Apostua egin behar da hizkuntzaren oinarri sendoa ezartzeko eta jendea kontzientziatzeko.

#### **Zein da AEK-ko prentsa arduradurenaren erroka nagusia?**

Euskal Herria euskalduntzea, bai eza gutzan eta bai erabileran ere, baina bereziki eza gutzan, eskolak ematen diren heinean, ondoren erabili ahal izateko. Helburu horri aintzat hartuta, gure helbura jendea erakartzea euskara ikasteko eta erabiltzeko. Horrela Euskal Herri euskalduna sortu dezakegu.

#### **Zeintzuk ezaugarri izan behar ditu euskarazko komunikatzaile eredugarri batek?**

Ziurrenik nik neuk ez ditudanak (barrreak). Ideiak modu argi baten transmititzen jakitea berebizikoa da. Badago berezko sen hori daukan jendea: jende aurrean nola hitz egiten den jakitea, egoten jakitea, antolatua izatea... Andoni Egaña bat, Edurne Broguar bat izatea (Aek-ko arduradun ohia). Gainera, komunikabide bakoitzari bere ezaugarrien araberako informazioa ematea, zintzotasunez. Antolaketa gaitasuna ezin daiteke ahaztu: prentsa oharrak prestatu, bilerak antolatu, webgunea eta sare sozialak atondu...

#### **Zeintzuk dira lan honek dauzkan alde positiboak eta negatiboak?**

Ikasi dudan horretaz bizi naiz eta nire lana jendea euskalduntzea da. Horrez gain, jende asko eta oso interesgarria eza gutzako aukera izan dut, bai etxe barruan eta bai kanpoan. Txarrena, alde teknikitik

*“Greziar ‘Aitaren Etxea’ telesaila euskaraz emititzen ari dira azpigituluakin. Zergatik ETB2k ez du antzekorik egiten?”*

*“Euskara normalizatzeke benetako apostua egin behar da administrazioan, eza gutzatik erabilerara salto egiteko”*

publizitate kontuekin ibiltzea eta komertzial lanak egitea. Gainera, lan astuna da: ordutegi gogorra dauka eta deskonektatzeko aukera gutxi ematen du..

#### **Zelan erredaktatzen dituzue prentsa oharrak?**

Euskeraz beti, eta nonork arazorik izanez gero, erdaraz bidaliko diogu, eta prentsaurrekoekin gauza bera gertatzen da. AEK-ko prentsaurrekoetan dossierrak berez euskaraz dira, eta norbaitek erdaraz behar izanez gero, laburpentxoak luzatzen diogu.

#### **Hedabideetan, non dabil ondo eta non gaizki gure hizkuntza?**

Ondo irratian. Iparraldeko euskal irrati libreak erreferenteak izan dira beti. Betidanik egon da sekulako lana atzean eta mugimendua handia bezain euskalduna da. Beste muturrean telebista legoke. ETB1, ETB2, ETB3, Hamaika Telebista... kate horiek mantentzeak lana ematen du eta oso zaila da. Prentsa erdibidean dago: publizitatea ez dago bere momenturik onenenean. Hala ere, tokiko prentsa gogortu ari da eta Aikori! herri aldizkariaren adibide da, besteak beste.

#### **Gure aldizkaria existitzen dela badakien jendea badago, baina euskaraz ez dakiela dio.**

Erantzun ona litzateke: euskara ikasten hasteko aukera aproposa da aldizkari hau! Problema ez da guk euskaraz hitz egitea edo idaztea, euskaraz dakitenek eta ez dakitenek ez hitz egitea baizik. Alfabetizazio erreminta da honako hau.



A group of seven diverse people of various ages and ethnicities are standing in a circle on a white background, looking towards the camera. They are dressed in casual clothing. The overall mood is positive and inclusive.

 **16/17**  
**IKASTURTEA**  
**UDAL**  
**EUSKALTEGIAK**  
euskara klaseak

*erabili euskara*

 **TXORIERRIKO UDAL**  
**EUSKALTEGIA**  
Herriko Plaza, 3 – 48160 DERIO  
Tel. 94 454 00 62 – Fax. 94 454 27 38  
euskaltegia.txorierri@bizkaia.org



## Ogia eta barazkiak, protagonistak



t: Jon Goikouria Larrabeiti / a: Ales Atxutegi

Hilaren hasieran, Merkatu Txikiko lehen edizinoa egin zan Zamudioko eskola zaharretako patioan. Bertan, era askotako produktu ekologikoak ikusi ahal izan ziran: tomateak, txakoliña, garagardo artisaua, patatak, porruak, kalabazak... Animalien artean, hegaztiak eta marraskiloiak egon ziran. Produkturik preziatuenak ogia eta barazkiak izan ziran: "Danetarik saldu da", azaltzen dau Ibai Etxebarriak, bertan aritu zan baserritarrak. "Jente asko hurbildu zan Zamudiora eta espektatibak bete egin genduazan. Pozik egoan jen-

tea". Garagardo artisaua bezalako produktuak zaiatu ziran lehen edizio honetan eta Urban Beer garagardoaren dastaketa saioak izan ziran. Produktu ekologikoen merkatuaz aparte, antxinako lanabesen erakusketa txikia be antolatu eben.

Zamudioko baserritar gaztea, beste baserritar batzuekin, nekazari ekologikoen alkartea sortzen dabil momentu honetan. Enpresa egiteko tramiteak egiten dabilz: "Dana prest izan behar dogu hurrengo ediziorako eta Udalak instalazinoak eta bestelakoak itxi ahal izateko". Ibaien ustetan, gaur egun gazte gehienek ez daukie zaletasun askorik nekazaritzare-

*Hilaren hasieran,  
Merkatu Txikiko lehen  
edizinoa egin zan  
Zamudioko eskola  
zaharretako patioan*

kiko: "Jente gaztea behar da sektore honetan eta laguntzak egon badagoz. Diputazioak laguntzak eskaintzen dau azpiegiturretarako, soloetarako, materialetarako...", azaldu dau. "Baina produktuak eskuan izanda, ez dago produktuak mugitzera-koan laguntzen dauenik". Produktu ekologikoen esparruari jagokonez, gakoa komertzio txikerretan dagoala azaldu dau Ibaik: "Gure target-a merkatu txikia da, produktuak hobeto saltzen diralako: kalitate handiko produktu freskuak, prezio onean. Honegaz bizi leike, diru mordoa lortu ez arren".

Zoriak bultzatu eban ibai mundu honetara: "Istripua izan neban eta lanetik bota ninduen. Etxekoak betidanik izan dira nekazariak eta mundu honetan has-tea erabagi neban", esaten deusku, eta produktu ekologikoen alde onetaz aritzen da: "Ez dago alderik. Produktu ez-ekologikoak tratatuak, garbiak eta batez ere politagoak dira, erraz sartzen dira begitik; ekologikoak ez dira hain politak eta tamainu diferentekoak dira. Baina zapore kontuan, produktu tratatuek ez daukie zer eginik".

# Nekazarien altxorak

Betidanik batu dira haziak. Nekazarien seme-alaba bezalakoak dira, eta azken 50 urteetan aldaketa ugari izan dira esparru honetan: hazi hibridoen hasierak aldaketa inportanteak ekarri dabez produkzioan eta komertzializazioan, eta horrek eragin itzela izan dau nekazal partikularren esparruan eta produktuen kalitatean.

t: Zamudioko Udalak babestua

Antxina, hazi mota ugari existitzen ziran. Kalkulaten da XX. mendean ia 500 barazki espezie landatzen zirela munduan, eta 1950. urtetik gaur egun arte, produziten danaren % 95a 30 espezieta-tik datorrela bakarrik, normalean ortuan ikusten ditugun produktu horiena: tomateak, piperrak, patatak...

Hazi hibridoa antxinako landare biren arteko nahasketea da. Oso emonkorrak dira, baina daukien alderik txarrena norberak ezin dituela bere kabuz hazi: hazi-saltzaile baten beharra dago. Hibridoen jaiotzak pribatizazioa ekarri eban: hazi hibridoak, izaki bizidunetatik eratorritakoak, enpresen jabetzakoak dira eta jabetza horrek urteak iraun leike.

Txorierrin, nekazaritza ekologikoan tokian tokiko hazia defendatzen da. Rustikoagoak izan ohi dira, gogorrak, eta lur motara eta klimara be egokituta dagoz. Betidaniko ekoizleak landare onena-

## Kontsultea:

**Jasone, Lezama**

**Zelan prestatu behar da zatza?**

Zatza ona bada, lurra landu baino lehen, bota eta lurragaz nahastea komeni da. Zatza ona ez bada, hots, fresko badago, lurraren gainean botatea da aukerarik onena. Horrela, hai-zeak berak deskonposatuko dau.

ren haziak gorde eta auzotarrekin aldatu ohi izan ditu, haziaren ondorengotza genetikoa gordeteko. Ez da komeni hazi berberak urteetan zehar toki berean landatzea; barietate berekoak auzotarrarekin nahastea eta landatzea da aukerarik idealena.

Landare mota asko dago, baina hiru talde berezi bereiz leitezke: lehenengoak, urteko landareak. Landatu eta urte berean hazia emon eta jaso egiten diren ho-

rreek dira: indabea, artoa, tomatea, piperra, kuitxoak... barruan hazia darenak dira. Udaberrian landatu eta udazkenean jaso ohi dira. Bigarrena, urte birik behin-eko landareak: landatu, negua pasa eta hazia hurrengo urtean jasotzen direnak: azelgak, porruak, berakatzak, tipula... Hirugarrenak, 'bizikorrek' deritzenak: urte bi baino gehiago bizi diren horreek. Ebagi ostean ostabere hazten direnak, Pe-rejilaren modukoak.

## Selekzioa, erreprodukzioa eta kontzerbazioa

Haziak landare gogorrenetatik eta emonkorrenetatik atara behar dira. Erneketa zelakoa dan ikusi behar da, hazitegian dagoenetik. Osasuntsua bada, ez da ikutu behar, eta horixe aukeratu behar da. Ugalketa prozesuaren inguruan, landareak autogamak edo alogamak izan leitezke. Autogamek euren burua ernaltzen dabezan bitartean (piperrak), Alogamek beste landare bat behar dabe erreproduziteko, eta normalean haizearen edota intsektuen bidez ugalduten dira. Espinaken eta kalabazen kasua da, esaterako.

Kontzerbazioari jagokonez, haziak toki naturalean gorde behar dira, ez hotz, ez bero; toki fresko eta aireztatua behar dabe eta urtaroen klima aldaketak modu naturalean hartu behar ditue, memoria daukie eta. Paper sobreetan, ohialetan, kotoian edota kristalezko poteetan gordetea gomendatzen da. Inoz be ez plastikozko boltsetan.

Tipularen hazia.



# Xabi Aburruzagak haize zeltikoa dakar azken lanean

Musikari euskaldunak Keltik lana kaleratu berri du, "momentura arte eginiko proiekturik handiena", hitz propioetan. Diskoaren azala ikustea besterik ez dago, entzulea Asier Bastidak egindako argazkietan agertzen diren oholen ehundurek eta koloreek Galizia, Asturias, Eskozia eta Irlandako paraje izugarrietan imaginatzeko.

*t: Jon Goikouria Larrabeiti / a: Asier Bastida*

Musikari zamudioztarra ez da bakarrik aritu Keltik proiektuan; Anxo Lorenzo, Oreka TX edo Xabier Díaz bezalako bertoko musikariek aritu da, eta baita nazioartekoekin: Susana Seivane, Alasdair Fraser, Natalie Haas, John Joe Kelly, Brian Finnegan, Ed Boyd, Youen Le Berre, Niamh Ní Charra, Martin O'Neil, Calum Stewart,

Rua Macmillan, Alos Quartet, Ross Ainslie, David Munnely eta Ellen MacDonald. "Kolaborazio batzuk atzerriko musikari famatuena dira, eta beste batzuk ez hain ospetsuak, baina kalitate izugarria eskaini dute" aitortzen du Xabik. Horietako batzuk alde aurretik ezagutzen zituen, eta beste batzuk lagunek aholkatuta ezagutu ditu. Aurreko 'Geure' (2013) diskoak nortasuna eta estilo propioa eman bazion taldeari, Keltik fusiona ekarri du eszenatokira.

Lan honen bitartez, trikitilariak musika zeltikoa eta euskalduna uztartu nahi izan du, Euskal Herriko eta musika zeltikoko instrumentuak konbinatuz. Diskoa berez Xabi's Road-en (Xabiren estudio propioa), Donostiako Elkarren, Asturiasen, Galizian, Britainian, Eskozian eta Ir-

*"Itsasontzia eraikitzea eta folka jotzea antzeko gauzak dira: eskuz eginiko kalitatezko prozesu geldoa da"*

landan grabatu da, eta Zamudion bertan nahastu: "Nire lehen aldia izan da disko baten ekoizpen lanetan, eta egia esateko poz-pezik nabil" adierazten du trikitilariak. "Gainera, benetan eskertzekoa izan da diskoaren atzean lan egin duten teknikarien lan izugarria, Jean Phocas (Oskorri), Unai Mimenza eta Aitor Antruejo, besteak beste" gehitzen du.





*Aurreko diskoak nortasuna eta estilo propioa eman bazion taldeari, KeltiKek fusioa ekarri du eszenatokira*

Diskoaren azalean Xabi Aburruzaga ikus daiteke trikia jotzen itsasontzi baten zurezko eskeleto barnean. Itsaontzia Al-baolako Itsas Kultur Faktorian topa daiteke (Donostia). "Itsasontzia eraikitzea eta folka jotzea antzeko gauzak dira" dio Aburruzagak. "Eskuz eginiko kalitatezko prozesu geldoa da". KeltiK iraila hasieran estreinatu zuen Xabi Aburruzaga & Bandek Getxo Folkeko XXXII. edizioan: "Itzela izan zen. Ikaragarria. Musikari asko ekarri genituen atzerritik eta bertoko dantzariak izan ziren. Publikoa hasiera -hasieratik bero zegoen eta kantu berriak estreinatu genituen. Eskertzekoa, benetan" azaltzen du Xabik.

Urriaren 7an Sondikan izango da Aburruzaga Gorantzaileak taldearen 50. urteurrena ospatzen: "Gorantzaileak taldekoek koreografiak prestatzen izan dira nire abestietara moldatuta, eta sekulako plazerra da hori". Zazpi urterekin solfeoan hasi zen, eta esku soinuarekin jarraitu zuen (pianozko akordeoia) hirugarren maila arte. 13 urte besterik ez zituela Bizkaiko txapeldun titulua eskuratu zuen, eta trikitira pasatu zen. Bere bizitza sakon-ean aztertze bideoklip autobiografikoa dauka Youtube kanalean, 'Maestro Zubeldia' izenekoa, ikusi beharrekoa.

## Diskografia

- KeltiK (2016)
- Geure (2013)
- Sartu da jaia Portura (2010)
- Denboraren Naufrago (2009)
- Bizkaiko Trikitixa Diskoa (2007)
- Sakabi (2007)
- Bizkaiko Trikitixa liburua (2005)
- Alkarregaz heldu ibilaldia (2004)
- Egunaro egunaro kalien (2002)
- Maketa (2001)
- Karmelo Ikastolako Kanta (2000)



SARRERAK AURRETIK EROSTEKO:  
TXARTELDEGIAN  
Edozein ekintza hasi baino ordu bat lehenago





**SONDIKAKO KULTUR ETXEA**  
Cestero kalea, 1 (elizaren atzean)  
Telefonoa 94.453.64.13



**ANTZERKIA**

**TIPOS DE TIPAS**  
Lalulu Teatro  
Komedia, gazte eta helduentzat  
Urriak 22, 20:00  
Prezioa: 10 €



**EL PRINCIPITO**  
106' AG (2D)  
Urriak 16, 17:00 (EUSKARAZ)

**GERNIKA**  
110' EG-16 (2D)  
Urriak 16, 19:30

**CIGÜENAS**  
89' AG (2D)  
Urriak 23, 17:00 (EUSKARAZ)

**EL HOGAR DE MISS PEREGRINE PARA NIÑOS PECULIARES**  
127' EG-7 (2D)  
Urriak 23, 19:30

**CAZAFANTASMAS**  
116' AG (2D)  
Urriak 30, 17:00

**BRIGET JONE'S BABY**  
122' EG-12 (2D)  
Urriak 30, 19:30

**ZINEA**





**ETA AZAROAN...**  
OZZY  
INFIERNO  
TROLLS  
UN MONSTRUO VIENE A VERME

2D: 4 €    3D: 6 €

\*Ghaira: produktorearen behar-tamain arabera, programazioak aldaketak jasari ditzake

# “Konplexuak alde batera itxi behar dira: ez dago euskera onik edo txarrik”

Euskera hizkuntza nomada dala esan leike. Herriz herri bidaiatzen dau eta toki bakoxtaren ezaugarri linguistikoak xurgatu eta bere egiten dauz. Txorierriko euskera horren erakusgarri da, haraneko hizkuntzan ez baitau kohesinorik Loiu, Erandio eta Leioa salbuespen dira. EHUko Koldo Zuazo eta Urtzi Goiti irakasleen arabera, geure haranean bizi dan euskereak mailaz maila aldatzen da, mendebaldetik ekialdera egin ahala.

t/a: Jon Goikouria Larrabeiti

Euskara hizkuntza zoragarria eta konplexua da. Geure hizkuntza dialektizatua dago, zatitua, eta mendebaldean egiten dogun hauxe, sakonean aztertuta berezia da. Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdea Euskal Herriaren ipar-mendebaldeko er-tzean dagoz, eta horrexegaitik da hango hizkerea hain berezia. Eremu honetan 25 herri dagoz: Zamudio, Maruri-Jatabe, Leioa, Getxo, Derio, Berango, Larrauri, Lezama, Meñaka... Hori dela eta, EHUko irakasleak diran Koldo Zuazo eta Urtzi Goitik *Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko Euskara* izeneko liburua argitaratu barri dabe.

“Bestelako hizkuntza normal batekin alderatzen badogu euskerea, modu ezberdinetan egiten doguzala konturatuko gara. Esaterako, Hego Ameriketan edo Kanariar ugarteetan autobusari ‘Guagua’ esaten jako. Salamancan, ordea, ‘Autobús’ esaten dotsie. Bada, norbaitek Euskal Herrian ‘Guagua’ non hartzen den galdetu ezkerro arraroa egingo litxakigu”, azaltzen dau Koldok. “Bizkaian ‘Agian’ ‘beharbada’ edo ‘baleike’ terminoen sinonimo moduan erabiltea normala da, baina hitz hau ez da sekula Bizkaian, Gipuzkoan edo Euskal Herrian ondo erabili. ‘Agian’ Ipar Euskal Herriko terminoa da eta ‘Oxala’ esan nahi dau. Esanahia txarto ikasi dogu eta egu-nero erabilten dan hitza da”, argitzen dau



eibartarrak. Euskerea aberastu eta indartu behar dela azpimarratzen dau Zuazok, baina era egokian: “Askotan gure hizkeraz harro sentitzen gara eta era okerrean erabilten dogu. Konplexuak alde batera itxi behar dira, ez dagoalako euskera onik edo txarrik”.

## Txorierri bestea hainbeste

Irakasleen arabera, Txorierri bi euskara mota bereiztu leikez: “Bata, Uribe Kostako euskerara hurreratzenean dana (Leioa, Erandio eta Loiu herriei dagoki-nak). Bestea, haraneko gainontzeko herriei dagoki-n euskeran ez dago ezelangorik”

adierazten dau Koldok. “Lar-rabetzuren kasua berezia da, oster-a, baleike Gernika eta Zornotzatik gertuago dagoalako, Txorierriko gainontzeko herrietatik berezita. Haranekoekin baino, bestelako herriein hartu emon gehi-ago izan ditualako, beharbada” azaltzen dau irakasleak. “Euskerearen aldetik, gainontzeko herriei dagokienez ez dago batasunik. Ez da gizarte kohesionatua izan: herri bakoxtak bizimodu propioa izan dau. Ganera, euskararen egoera motela kontuan izanik, batasun hori lortzea gatzaxo-ga da. “Bizkaian huriak eta elizaldeak dagoz” gehitzen dau Urtzik: “Hurietan merkatari-

**TALLERES JUAN ANDRES**  
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA  
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragoiti ind., 8 - 216 Pab.  
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

**TXORIERRI MARMOLDEGIA**  
Sukalde eta bainugeletako harriak  
Fatxadak • Atariak • Hilerriak

Torrelarragoiti ind., 7 B P. - 2. nabea  
48170 Zamudio (Bizkaia)  
T./F.: 94 608 01 41-2

**GORBEIA MERTZERIA**

Gorbeia kalea, 7  
ZAMUDIO  
94 655 90 08



*“Askotan gure  
hizkeraz harro  
sentitzen gara eta  
era okerrean  
erabiltzen dogu”*

*“Txorierriko  
euskerak  
ez dauka  
ezelango  
batasunik”*

*“Larrabetzuk,  
haranekoakaz baino,  
bestelako herriakaz  
hartu emon gehiago  
izan dauz”*

tzarako eskubidea egoen eta eleizalde baten ez, ostera. Larrabetzu huri bat zan eta horixe zan gure hasierako hipotesia: huriak kohesino puntuak zirala” adierazten dau Urtzik. “Hala ere, hipotesi hura ezer ezean geratu zan” argitzen dau.

Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko Euskara 572 sarrerako liburua da. Bertan, Mendebaldeko, Bizkaiko Sartaldeko eta Bertako (Uribe Kosta, Mungialdea eta Txorierri) hitzak topa leikez. “Liburua publikatu aurretik baziren lan monografikoak”, azaltzen dau Koldok: “baina ikuspegi orokorra erakusten dauan libururik ez dago eta horixe izan

da bion erronka”. Hiru atal bereiztu leikez liburuan: lehenengoan gramatika eta sintaxia lantzen da. Bigarren atalean hiztegia dago eta bertan egunero erabiltzen doguzan berba horreek ageri dira. Sarrera bakotzak adibidea dakar irakurlea laguntzeko. Hirugarren atalean analisisa eta datuen interpretazioa ageri da: “Aurreko informazioa bilduta analisisa egiten da, eskualdez eskualde topa diren berezitasunak azpimarratuz” azaltzen dau Urtzik: “Ganera, atal honek eskualde bakotxako ezaugarriek zelako hedapena daukien edo euki daben ilustratzen daben mapak dakarz”.

Orain bi urte alkar ezagutu eben bi irakasleek. Koldok, denpora eroian euskara aztertzen filologo lanetan. Arabatik hasi eta astiro - astiro Euskal Herri osoa aztertzen hasi zan. Urtzi, ostera, saguzarrak aztertzen dabezan zientzia irakaslea izan arren, euskaltzale amorratua ere bada, eta Leioako euskerea aztertuta eukan lehena-gotik.

Momentura arte, 25 udalen artean 800 ale saldu dabez bi lagunek, eta etorkizunean proiektu barriak egiteko asmoa daukie. Liburuaren aurkezpenaren egunean, horrela sinatu zigun gurea: “Erabili gure berbak, geuriek dielako”.

**LEANDRO LANDETA**

**HARAGITEGIA-URDAITEGIA**  
Oiz Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 - 48170 ZAMUDIO

**OSTEOPATIA-ZENTROA**  
ORDEZKO TERAPIAK

*Lasai*

**Luis M<sup>a</sup> Asensio**  
Terapeuta naturopata

Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO  
Tel: 94 454 10 28 - Sakelekoa: 655 74 24 89  
osteopatialasai@gmail.com

**Nire Autoocasion NA**

**IMPORTAZIOA ETA SALMENTA**

GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48160 DERIO-BIZKAIA  
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12  
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92  
www.nireautoocasion.com info@nireautoocasion.com

t/a: Gaizka Eguzkitza

Arkaitz Orozkok 30 urte ditu eta Txelis-en, José Luisen semea da, Goiherri taldeko entrenatzaile mitikoa. Halanda be, Arkaitzek futboleko jokatzeko eban txikit. "Betidanik gustau jat soka, eta askotan aitagaz joaten nintzan entrenetara edo saioetara. Baina berak ez ninduan sokatira taldean aritzera inoz animau. Eta futboleko jokatzeari itxi neutsanean, azkenean, sokatira hasi nintzan", dino Arkaitzek.

Sokatira oso kirol gogorra da, eta gazte zamudioztarraren berbetan, "benetan gustau behar jatzu horretan aritzeko". Bakotzak egin edo moldatu behar dau materiala, sokatirari zuzendutako material propiorik ez dagolako. "Normalean, bigarren eskuko gurrpil-lerroko patinak erosten doguz eta hareei gurpilak kendutan deutseguz, bota moduan erabilteko". Bestetik, entrenametuak oso gogorrak dira fisikoki. "Astean lau aldiz entrenaten dogu eta txapelketak badagoz, bost egun astean".

Baina gaxena "nor bere pisuari eustea" da. "Bakotzak badaki zein pisu euki behar dauan. Urtean zehar kontrolaten dogu, baina txapelketaren aurreko egunean bertan hiru kilo gitxiago pisau behar dogu. Horretarako, deshidratatu egiten gara, hau da, ez dogu urik edaten. Ganera, ariketa fisikoa egiten dogu edo saunara joaten gara izerdia botetako. Hurrengo egunean, jan eta edan barik pisua neurtzen deuskue eta orduan bai, orduan, apurka-apurka edan eta jan egiten dogu".

Eta gogortasun horregaitik, hain zuzen be, sokatirak poztasun handia ekartzen deutso Arkaitzi. "Sokatira askoz gogorragoa danez, garaipena askoz gozoagoa da. Oso erakargarria iruditzen jat sokak". Ganera, mutilak ez dau txarto egiten. Arkaitz 2008an hasi zen lehia sartzen Goi-

*"Sokatira futbola  
baino askoz  
gogorragoa danez,  
garaipena askoz  
gozoagoa da"*

# Sokari helduta

ARKAITZ OROZKO | soka-tiratzailea

Aita sokatira entrenatzailea izan arren, Arkaitz Orozko zamudioztarra berandu hasi zan kirol horretan. Harrezkero, aldiz, sokari helduta bizi da eta gogor entrenatzen dau astero. Irailean, Munduko Txapelketan, bere azken domina lortu dau eta Euskal Herria ordezkatzeko aukera euki dau bertan.



Arkaitz, laugarren tiratzailea, txapelketa baten.

herri taldean eta, harrezkero, hainbat garaipen lortu ditu, bai taldearen izenean, bai Euskal Herriaren izenean. Urrezko domina batek, zilarrezko bik eta brontzezko hiruk osatzen dabe Arkaitzen palmaresa.

## Azkena, zidarrezko domina

Irailean bertan azken domina, zidarrezkoa, eskuratu eban, Suedian jokaturako Munduko Txapelketan. Arkaitz hara joan zan bere taldeagaz, Goiherri, eta beste talde euskaldun batez batera, Laukizko Gaztedi. Eta han beste txorierritar bi dagoz, Eneko Bilbao zamudioztarra eta Unai Ibarra sondikoztarra. Txapelketa bi mailatan egiten da: batetik, taldeak; eta bestetik, herriak. Goiherrik ligaxka gaintu eban, baina lehenengo kanporaketan, final-zortzirenetan, alemaniar

batzuek kaleratu zituen. Nazino mailan, aldiz, hobeto ibili ziran. "Ez genduan espero, baina domina lortu genduan. Ligaxka gaintu eta gero, talde mailan kanporatu ginduezan alemaniarren kontra aritu ginan eta irabazi egin geuntsen. Mendekua hartu genduan (kar, kar). Finalean, aldiz, galdu egin genduan suitzarren kontra".

Sokatira euskal kirola da, eta batzuek uste dabe bertan baino ez dala egiten, baina ez da egia. "Oso onak dira Europa mailan: Alemania, Irlanda, Ingalaterra... Baina batez be Suitzan. Han era sutuan bizi dabe sokatira, talde asko, gazte asko aritzen dira eta harrobi handia dabe. Taiwan be sendo dabil. Bertan sokatira ikasgaitzat dabe eskolan, eta batez be neskak dira oso onak".



## Dominak

### Europako txapelketa 2013:

Brontzekoa (Goiherri) eta zidarrezkoa (Euskal Herria).

### Munduko txapelketa 2014:

Brontzekoa (Euskal Herria).

### Europako txapelketa 2015:

Urrezkoa (Goiherri).

Brontzekoa (Euskal Herria).

### Munduko txapelketa 2016:

Zidarrezkoa (Euskal Herria).

Lehiakortasun handia dago mundu mailan, bai, baina euskaldunok onenen artean aritzen dira urtero-urtero. "Oso tiratzaile gitxi gara eta, europarrakaz konparata, txikerrak gara fisikoki. Halanda be, benetan azpimarratzekoa da Euskal Herriko tiratzaileok txapelketaz txapelketa adierazoten dogun maila handia", dino Arkaitzek, harrotasuna ezkutau barik. Eta Euskal Herriaren izenean lehian sartzeak be harrotasun itzela ekarten deutso gazte zamudioztarrari. "Apurka-apurka aurrerapausoak emon doguz: hasieran, Espainiaren izenpean jokatzeko genduan; gero, izen horregaz, baina euskal kamisetagaz; ondoren, Euskal Herria izenpean; eta azkenik, antolatzaileek ikurriña jartea lortu genduan. Guretzat Euskal Herria atzerrian ordezkatzeko ametsa da". Hurrengo ametsa munduko txapelketa izatea da, eta datozen urtean hori lortzeko lehian sartuko da Arkaitz.

## Egin zaitez AIKOR!lagun



Izen-abizenak: \_\_\_\_\_

Helbidea: \_\_\_\_\_

Telefonoa: \_\_\_\_\_

e-posta: \_\_\_\_\_

IBAN+Bankuko zenbakiak: \_\_\_\_\_

Urteko kuota: 30 euro \_\_\_\_\_ Beste bat \_\_\_\_\_

Aldizkaria jasotzen duzu? \_\_\_\_\_

Sinadura \_\_\_\_\_

Orri hau helbide honetara bidali:

**AIKOR! Aldizkaria**

**Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio**



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatzeko du gurea ulertuko duzu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Honek honetara jo behar duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

# Autoen orroen Hamarreko Handia

ZAMUDIOKO RACING EGUNA

Zamudio Racing Alkartek lehen hamarkada bete dau, eta autoen orroen zein II. Bertso Rally Erronkan entzun ziran doinuen artean ospatu ebezan. 2004an Txorierrri Motor Sport moduan hasi zan proiektuak gasolinaz eta Arkaitz Estiballesen, Andoni Egañaren, Amets Arzallusen eta Fredi Paiaren doinuakaz konbinatu ziran Zamudion, hilaren hasieran.



t: Jon Goikouria / a: ZRE

"Irailaren 9 eta 10ean dezibelioak protagonistak izan ziran Zamudion barrero, Zamudio Racing Alkartek 10 urte bete ebazalako. Neurketak egon ziran alde bitatik: batetik, autoen erakusketako mugimenduak gauzatzeko egin behar diranak; bestetik, bertsolariek euren kantuetan kontutan hartu behar dabezenak. Lehen hamarkada hau ospatuteko gaur eguneko bertsolaritza panoramako lau erraldoi hurbildu ziran Txorierrri: Arkaitz Estiballes, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Fredi Paia. Egun bitan zehar danetarik ikusi ahal izan zan Zamudion: pilotoen mahai inguruak, kontzertuak, II. Bertso Rally Erronka eta, zelan ez, autoen erakusketa - probak izan genduazan.

Gaur egun 22 piloto dagoz Zamudio Racing Alkartean eta horreetako bost, zamudioztarrak dira: Ibon Garai eta Aitor Bergara, Unai Larraskitu eta Ander Barbarias, eta trialean Iñigo Lázaro. Gainon-



tzekoak inguruetakoak dira. Urteak pasa ahala, alkarteren helburuak norabidez aldatu dira: 2004an sortu zanean, garai hartan Txorierrri Motor Sport izenpean, helburu nagusia lehiaketetan parte hartu nahi ebezan pilotueri laguntza emotea zan. 2006an aldaketak egon ziran presidentzian: izen barria hartzeaz ganera (Zamudio Racing Alkartea) bestelako helburuak ezarri ziran: Estatu mailako konpetizinoetan laguntza emotea pilotuei. 2009an ostabere aldaketak izan ziran eta Egoitz Mozo heldu zan presidente lanetara: "Hasiera baten Slalom eta trialaz arduratzen bazan alkartea, aurrerago bide-heziketea bultzateaz arduratzen hasi zan, bereziki gazteei zuzenduta" azaltzen dau Egoitzek.

Horrezaz gain, bestelako aktibitateak garatzen dauz Zamudio Racing Alkartea: amaxofobia (ibilgailuak gidatuteko bildurra) lantzekoa, rallye simulatzailea: "Azken horren kasuan, helburua rallyak zer diran azaltzea eta segurtasunez gidatzeko aholkuak emotea da" azaltzen dau Mozok. Hortaz, alkarteren gaur egungo erronka herriko eta inguruetako pilotuei kobertura emoteaz ganera motorraren mundua zelakoa dan azaltzea da, kirol ekitaldien eta jokoen bitartez.

Alkarreak, euren kotxeak moduan, aurrera egiten darrai, eta 2014 urtea erreferentzia modura hartuta -urte harretan Ibon Garaik eta Aitor Bergarak zamudioztarrek Euskadiko Rally Txapelketan euren kategoriako lehen postua eskuratu eben eta-, erronka barriak prestatzen ari dira



### *"Gaur egun 22 piloto dagoz Zamudio Racing Alkartean eta horreetako bost, zamudioztarrak dira"*

egutegian: Zamudion bertan ospatzen dan Euskadiko Trial Txapelketa edota azaroko azken astean antolatuko dan IV. Zamudioko Rallya. Mozok berak hala aitatu eban *Deia* egunkarian: "Rally propioa izatea eskuderia batek dauen amets nagusia da. Bizkaia eta Euskadiko txapelketarako froga neurgarria da", laburbiltzen dau.





**lezama**  
consultorio veterinario  
albaitaritza klinika  
www.consultorioveterinariolezama.com

J.R. Galdona Madariaga  
BI-515



Medikuntza orokorra  
Txertaketak  
Parasitoak hil  
Mikrotxipa  
Kirurgia  
EKG  
Analisiak  
Ospitalizazioa  
Ekografiak



94 455 56 19    Aretxalde, 21bis    •    48196 Lezama

# “Gazteak kalean euskaraz egiten ikustea da politena”

IZASKUN FERNÁNDEZ | Gurasolagun programako partaidea

a: Itsasne Zubiri

## Zergatik erabaki zenuen Gurasolagunen parte hartzea?

Bereziki euskara maila hobetzeko. Duela bi urte hasi nintzen Gurasolagunen.

## Alde handia dago Ortuellako eta Zamudioko euskaren artean?

Bai, sekulakoa. Oso era ezberdinean hitz egiten da toki batean eta bestean. Txorierrin bai gazteek eta baita zaharrek badakite euskaraz hitz egiten; Ortuellan ez, ordea. Bertako denda gehienetan ezin daiteke euskaraz mintzatu. Gainera, parkeetan umeez erdaraz egiten dute eta euskara eskolatan soilik entzun daiteke. Zamudion, ostera, ez dago problemarik eta heldu bezain pronto gehien harritu ninduen gazteak kalean euskaraz hitz egiten ikustea izan zen.

## Nolako esperientzia izan duzu Gurasolagunen?

Oso gustora nago. Hodeik (Izaskunen semeak) oso ondo pasatzen du, jolasak egiten ditugu elkarrekin, eta euria egiten badu liburutegira joan ohi gara... esperientzia oso aberasgarria. Gainera, hitz-

Duela hamar urte Ortuella utzi eta Zamudiora etorri zen Izaskun Fernandez. Gaur egun, Gurasolagun programan parte hartzeaz gain, La UCI del Móvil-en lan egiten du. Txorierriko lasaitasuna eta bertako euskararen nabarmentasuna gogoko ditu, baina batez ere gazteek eta zaharrek gure hizkuntzaren aldera duten pasioa.



*“Umea eta biok oso gustora gaude Gurasolagunen, primeran pasatzen dugu”*

**HAUR-MODA**  
**TxIMELETA**  
Gernikako Arboia, 8 DERIO  
94 454 14 35

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

Zaindzu Berriak  
Logopedia  
Podologia  
Kipmasajes

**clinica dental ZAINDUZ hertz klinika**

Txorierrin etorbidea, 9 - Loria | Arriaga eskolara | 48180 DERIO  
94 454 01 01 | 657 79 54 45  
info@dentalezaindus.com | www.dentalezaindus.com

**RUBEN**  
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Lasaola plaza, 5  
48170 Zamudio  
94 452 14 49



jariora nabarmenki hobetu dut. Dena ulertzen dut, baina arazoak nituen hitz-jarioan.

**Zer egiten duzue Gurasolagunen?**

Astelehenero, eskolatik irten bezain pronto, ordubetez elkartzen gara euskaraz egiteko, umeek merienda hartzen duten bitartean. Egun ona egiten badu, kalean ematen dugu, eta eurria ari badu, liburutegira joan ohi gara.

**Zer da gehien gustatzen zaizuna?**

Harremanak egitea eta jende berria ezagutzea batez ere.

**Semearekin euskara gehiago hitz egiten duzu?**

Bai, semea oso uzkurra da euskararen esparruan, baina Gurasolagun programan hasi ginenetik moldatu egin da, eta marrazki bizidunak euskaraz jartzea eska-

*“Gurasolagunen parte hartzea oso aberasgarria; nik hitz-jarioa nabarmenki hobetu dut”*

tzen dit askotan. Erdarazko hitzen itzulpenak eskatzen dizkit ere sarritan. Gehiago hitz egiten du euskaraz harrezkeroztik.

**Zelan animatuko zenituzke beste-lako familiak Gurasolagunen parte hartzeko?**

Egun batez behintzat bertara hurbiltzea eta esperientzia zer nolakoa den ikustea, benetan merezi du eta.



**berba lasun**

**INFORMAZIOA:**  
**Telefonoa:**  
635 75 35 95  
**E-mail:**  
txori.berbalaguna@gmail.com  
**Bloga:**  
www.aikor.com/txokoa/berbalagun  
**Antolatzaileak:**  
TOTOAN TEEF  
Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea

**GAMINIZ**  
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025  
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa  
48170 Zamudio - Bizkaia  
GPS: 2°51'41" W 43°17'37" N

www.gaminiz.com

**LEIRE BEGOÑA**  
**ULE-APAINDEGIA**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 20  
48160 DERIO  
94 454 26 32

Jarrai leagun Facebooken

Jatetxea **SAN ISIDRO**

EUNKO OKIETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERKO GOZOGINTZA AFARUA

**ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK**

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzua - Jantoki pribatuak  
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala

Telefonoa 94 454 07 98 Mungialde etorbidea 25  
Fax: 94 454 14 18 48160 DERIO

**LOREGARBI** **GARBIKETA ZERBITZUAK**

Garbi-ikusiak, orriak  
Auzokoen komunitateak  
Mantentzeko garbi-ikusiak  
Bulegoak eta lokalak  
Orra amarrak garbiak  
Iturriak  
Zabor bilaketa

Beside Plaza, 1 - Bº Aldekone Tel: 94 406 49 92  
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443  
loregarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

**R P A**  
**MAYORISTAS INFORMATICOS**

**ENPRESETARAKO INFORMATIKA SAREEN MANTENIMENDUA ZERBITZU TEKNIKOA**

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio  
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com

**Peñasko**  
arraindegia


Mendiko, 4  
48170 Zamudio  
Tel: 94 452 0808

**t i k**  
**t a k**

**EGUNEKO MENUA**  
lehenengo platera  
bigarren platera  
postrea  
sopa  
edaria

**9€**

Bestorene 5, Behea 48160 DERIO  
**T: 94 454 55 55**



## Euskara-ingelesa itzultzailea

Duela hiru urte, Eusko Jaurlaritzak itzulpen automatikoko sistema bat garatu zuen, itzulpenak Internetez bidez egin ahal izateko. Hasiera batean, programa gaztelaniaren eta euskararen arteko esaldiak, testuak edo webguneak itzultzeko gauza zen, baina gaur egun ingelesa ere itzultzeko aukera ematen du. Programa doan deskargatu ahal da bai ordenagailuan, bai sakelako telefonoan, Android sisteman zein iOS sisteman. Hori ez da aurrerapauso bakarria izango, datorren urterako frantses-euskara itzultzailea prestatzen dabilta-eta.

Itzultzaile automatikoak gramatika eta lexiko konputazionalak erabiltzen ditu, itzuli nahi den testuaren esaldi bakoitzaren azterketa morfosintaktikoa egiteko, programak hitz bakoitzarentzat itzulpen egokiena aukeratzeko eta, azkenik, esaldia euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez sortzeko. Askotan, hizkuntza hauetako itzulpena zuzena izango da,

edo ia zuzena, estilo kontuak alde batera utzita; beste batzuetan, oster, (lortutako) itzulpena zati batean bakarrik izango da zuzena, edo besterik gabe, ez da zuzena izango. Kontuan izan behar da itzulpen automatikoko programa batek ez duela ulertzen itzultzen ari dena –gizakiak egiten duen moduan– eta egiten duena dela esaldien itzulpen “mekanikoa”.

Ahalik eta itzulpen zuzenena lortzeko oso garrantzitsua da abiapuntuko hizkuntzako testua ondo idatzita egotea: akats ortografikorik gabe, azentuak zuzen ezarrita eta puntuazio markak egoki erabilia. Bestalde, erabiltzaileak “erakutsi aukerak” laukitxoa marka dezake, sistemak zenbait hitz itzultzeko dituen aukerak ikusteko. Adibidez, itzultzaile automatikoak “El tiempo ha sido bueno” esaldia itzultzeko, “erakutsi aukerak” laukitxoa markatu gabe, “Denbora ona izan da” emango du; baina laukitxoa markatuta, “Denbora/Eguraldia ona izan da” itzuliko du.

### Gero eta erabilia handiagoa

Azken hiru urteotan, gero eta lagun gehiagok erabiltzen dute itzultzailea. Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak adierazi zuen 2015eko

apirilean 970.000 itzulpen egin zirela; 2016ko apirillean, aldiz, 1,6 milioi, % 67 gehiago, alegia. Guztira, ia 11 milioi itzulpen egin dira urtean. Hau da, 1,5 milioi hilabetean eta 50.000 egunean. “Itzultzaileak gero eta hobeak izan arren, tresna lagunagriak baino ez dira eta batzuetan akatsak egiten dituzte. Erabiltzailea da akats horiek zuzendu behar dituen”, esan zuen Baztarrikak.

Baztarrikaren esanetan, “euskaldunen erkidego digitala dinamikoa da”. “Azken 15 urteotan, euskararen osasun digitala pelotoiaren burutik gertu dago”. Eusko Jaurlaritzak 2,5 milioi euro bideratu du aurtun, euskararen presentzia informazioaren eta komunikazioaren teknologietan sustatzera. Gaur egun, munduan dauden hizkuntzen % 5 baino ez da erabiltzen Interneten, eta horietako bat euskara da. Izan ere, euskara 44. postuan dago, sarean erabiltzen diren hizkuntzei dagokienez, eta 33. postuan, Twitter gizarte-sarean erabiltzen direnei dagokienez. Era berean, euskara erabilgarri dago Interneten dauden hainbat tresnatan: Google bilatzailea, Firefox nabigatzailea, Facebook gizarte-sarea...

**Programak deskargatzeko:**  
www.itzultzailea.euskadi.net

*Datorren urterako  
frantses-euskara  
itzultzailea ere  
eskainiko dute*

# Euskararen Polinesia

## Zelan oratu ikasturte berriari?



t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Polinesia hitza grezieratik dator, *polis* asko eta *nesos* uharte berbetatik; 1.000 irlatik gorako artxipelago handia da; Ozeaniako lau lurraldeetariko bat.

Euskararen erreinua batasun bako lurraldea da, uharteka antolatutako espazioa; herri batzuk osorik dira euskaldunak, baina inguruak erdaldunak edo ia erdaldunak. Mende honetan, familia euskaldun batzuek, erdal itsasoaren goraka-

da ikusirik, mendietara jo dute; herri euskaldunetara erretiratu dira seme-alabak euskaldun hazi daitezten. Jokabide pozgarri hori, ostera, ez da konponbidea ze, era horretara euskal errefuxiatu bilakatuko gara geure Euskal Herrian.

Euskaldunok erdaldunekin lehian jarraitu behar dugu –abertzaleekin nahiz ez abertzaleekin– erdal guneak euskal gune bihurtuz, eta ez –erdara lasai lagata– euskararako bizileku paraleloak sortuz. Erdal unibertsoa euskal bilaka dadin eraiki da Baserri Antzokia bera ere Txorierrin.

Ikasturte berrian, euskararen uhartera datozkigu Berbalaguneko herritarrak, eta euskara dakigunok *foreigner talk* praktikatzeko prest izan behar dugu, alegia, euskaldun berrien mailara egokitze prest, bai hizkeraz, baita jarreraz ere.

Gainera, euskaldun berriari euskara erabiltzeko eskatzeaz gainera, askatasuna eman behar diogu, euskaraz ezin esan duena gazteleraz esan ostean euskarara itzul dadin.

Bestalde, gu euskara dakigunok ezin gara lotan bizi, ikasketa eten gabeko zeregina da-eta. Hara, adibiderako, ikasturte berrian –irakasleok-eta– hobetu beharrekoak. Galdetzean esaten da: **Badakizu euskaraz?** Eta itaunari erantzutean: **Badago inor?** Ez, inor **ez!**

Ekologiaren paradigma zaintzen badugu, Polinesiako uharteak ez dira itsaspean desagertuko, eta uharterik uharterako zubigintzan elkarturik jokatzen badugu, euskara artxipelago izatetik kontinente izatera aldatuko da.



**ASADOR  
ARAMENDI**

**EZKONTZAK  
BATAIOAK  
BANKETEK  
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119  
Tlfnoa.: 94 452 11 58  
ZAMUDIO

Tel./faxa: 94 452 06 64  
Tomelarragoti Ind. P-7  
48170 Zamudio (BIZKAIA)

Restaurante  
**JANA - JATEKIA**



Eguneko menuak  
Menu bereziak  
Jaunartzeak, bataioak eta ezkontzak



**ZAMUDIO  
Loteria Nazionala**

Leizaola L. plaza, 7  
Tel.: 94 452 09 59  
Faxa: 94 656 69 95  
josuastorkiza@gmail.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1  
Tel.: 94 454 10 06  
Faxa: 94 454 12 15  
48170 Zamudio (Bizkaia)



**SANTI MAMI  
ALBAITARITZA**

Nerea Pedrosa Cofa, 517  
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO  
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15  
Faxa: 94 454 12 15

**Sukaldaritza berritzailea**

\*Oharra: errezeta hau egiteko osagai eta tresneria berezia behar da.



## Pipa izozkia, erremolatxa kurruskariarekin

t: Eduardo Delgado

**Osagaiak:**

- Zuritutako pipak
- Esnea, 1,5 l
- Esne gaina, 500 ml
- Azukrea, 350 gr
- Glukosa, 60 gr eta destrosa, 10 gr
- Algarrobo - goma, 4 gr
- Erremolatxa, bi unitate

**Prestetako area:**

Izozkia egin izozki osagaiekin: destrosa, algarrobo - goma eta glukosa natan disolbatu. Esnea pipekin eta azukrearekin aromatizatu. Dena nahastu eta izozki makinan sartu. Erreserbatu. Erremolatxa kurruskarirako, erremolatxaren likidoa eta soberakinak baztertu eta labe paperean jarri, ondo luzatuak, 75 gradutara, 4 ordu-tan zehar.

**Etxeko sukaldaritza**

## Sagar gratinatuak

t: Maite Lekerika

**Osagaiak, 4 lagunentzako**

- Kilo bat Reineta sagar
- 250 gr azukre
- 100 gr arto uruna (edo Maizena)
- 500 ml esne
- 5 arraultz gorringo
- Limo bat
- 50 gr gurin
- 50 gr almendra txikituak

**Prestaketa**

Sagarrak garbitu, erditik ebagi eta haziak eta muzkila kendu. Limoiaz igurtzi eta heltze baten ipini egosten ur apur batez azalagaz eta limoi erdiaren azalagaz, su ezitan. Kanela eta 50gr azukre gehitu eta 15 minututan egosi.

Beste heltze baten nahastu ondo arraultzak, 200gr azukrea eta uruna. Gehitu esnea ondo berotuta, irakiten hasi arte. Orduan, kendu sutatik eta irabiatu gelditu barik minutu bat inguruan. Gehitu sagarrak egosteko erabilitako ura eta irabiatu barriro. Labean sartzeko eta mahaira aterateko moduko moldeetan banatu sagarrak, azala gorantz, estalki kremagaz. Bota almendra txikituak ganetik, gurin apur batekin erdian eta sartu labe beroan (175º) apur bat gorritu arte. Zerbitzerakoan, kanela apur bat bota leiteke

**ASESORÍA**  
Luis Fernando Aguirre, s.l.

---

Mateo Vidaurrazaga, 1  
Tfn: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28  
48150 SONDIKA (Bizkaia)

**Izpilen**  
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA


Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)  
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com


**PATXI**  
KOOP

PATXI KOOPERAZIOA ELKARTEA  
Herriko jarduera - Herriko 4. 48170 Zamalloa (Bizkaia) - Tel: 944 522 587 - info@paxi-koop.com - www.paxi-koop.com

**SARRIKOLA**  
OGITEGIA

Euskal pastela  
Baserrako ogia  
Bizkotxoak  
Hainbat tarta

 Sarrikola, z/g Larrabetzu  
Tel.: 94 455 83 37  
619 78 58 84



## Umeekin zer irakurri?

### Osteratxo bat parkean

Ana Apika

**Idazlea:** Anthony Browne

**Argitaletxea:** Pamiela-Kalandraka (2013)


Liburutegietan dago irakurgai.

Anthony Browne idazle eta irudigile bikaina da, eskarmentu handikoa. Egile hunkigarri honek hainbat sentimendu helarazten dizkigu bere lanetan, batzuetan goxoak, beste batzuetan mingotsak; balio unibertsalak ere aurkituko ditugu: laguntasuna, elkarbizitza, familiaren garrantzia, elkartzasuna, zuzentasuna...

Egileak hainbat liburu ditu ingelesetik euskarara itzulita: *Urdabutarrek*, *Jon eta Beñat*, *Jon txapeldun*, *Nola sentitzen zara?*, *Gorila*, *Kexkamuxelak*, *Jon amezlaria*... Beste bat Osteratxo bat parkean da. Horretan familia bi dira protagonistak. Batetik, ama,

semea eta txakurra; bestetik, aita, alaba eta txakurra. Guztiak batzen dira parkean, arratsalde batean, eta txakurrak eta umeak elkarrekin hasten dira jolasten, pozik. Gurasoak, aldiz, pentsakor gelditzen dira banku batean, etxera itzultzeko ordua heldu arte. Liburuak bakoitzaren ikuspuntua eskaintzen du eta irakurleak lau istorio desberdin irakurriko ditu. Hitzetaz eta irudi bikainen bitartez liburuak erakusten digu bakoitzak era ezberdin batean interpretatzen duela errealitatea, norberaren sentimenduen eta aurreiritzien arabera.

Liburua marrazkiz josita dago. Brownnek egiten dituen liburu guztietan gertatzen den bezala, hainbat gauza izkutatzen dira irudietan. Esate baterako, pintore famatuaren lanen zatiak eta ezagututako erreferentzia piloa. Oso polita da bertan dagoena pixkanaka deskubritzea.



#### AHOLKUA

Zure umeari zuri gustatzen zaizun edozein istorio konta diezaiokizu: txikitik ezagututakoa, liburu batetik ateratakoa edo zuk zeuk asmatutakoa. Liburutegitik ateratako liburu batekoa bada, irakurri zuk lehenengo eta gustatzen bazaizu, aurrera. Liburuetan agertzen diren irudiak komentatu, pasadizoak gehitu, pasarte batzuk kendu edo aldatu, istorio hori zeurea egin eta, batez ere, disfrutatu!

## Azakak

### Lezama

- > Denon Artean II. Azoka. Lezama Saretzen Elkarte. Urriaren 15ean. Udaletxe atzean.

### Larrabetzu

- > Larrabetzuko Bertoko Produktuen XVIII. Azoka. Gurgide Elkarte. Urriaren 14, 21, 23 eta 27an.

## Erakusketak

### Sondika

- > Argazki erakusketak. *Oporrak*. Altzora Euskara Elkarte. Udal liburutegian.

### Derio

- > Felipe Manterola. Baserri giroko gizar-teko argazkilaria. Urriaren 13ra arte. Kultur Birikan.
- > Argibide panelak. Juana Elguézabal. Andrearen bizitza eta lana XIX. Mendeko Derio eta Cáceresko testuinguru historikoan. Urriaren 21etik 28ra bitartean. Kultur Birikan.
- > Argazkiak. Emigrazioa 60. eta 70. urteetan Deriora heldu zenean eta herriaren hirigintza-aldaketa. Urriaren 21etik 28ra bitartean, Kultur Birikan.
- > Andrés Montesanto. 'Emigrazioa, bere musika eta bere legatua'. Urriaren 21etik 28ra bitartean, Kultur Birikan.

### Zamudio

- > *Aisialdia* argazki erakusketak. Urriaren 16ra arte.

## Hitzaldiak

### Zamudio

- > *Argazki saioa Akarlandan*. Derioko Argazkilaritza Taldea. Urriaren 4an, 19:00etan. Kultur Birikan.

### Larrabetzu

- > 'El fútbol, el Athletic y los niños'. Europako Ondare Jardunaldiak. Urriaren 21ean, 19:30ean.

### Larrabetzu

- > Lehenengo hilerokoari buruzko hitzaldia. Urriaren 28an. 18:00etatik 20:00etara. Uribarri topalekuan.

## Ikastaroak

### Derio

- > Irristaketa ikastaroa. Urritik aurrera.

### Sondika

- > Grafiteando. Urriaren 8, 15, 22 eta 29an. Gaztetxean.
- > Halloween kartak eta beldurrezko gozokak. 3-7 urte bitartekoentzat. Ludoteka I.

### Zamudio

- > Zomorroak. Umeentzako tailer zientifiko. Urriaren 15ean, 11:30an. Udal Liburutegian.
- > Zen meditazioa. Urriaren 21ean, 20:00etan. Eskolako Areto Nagusian.
- > Aurpegia Gore erara makilatzeko ikastaroa. Urriak 29, 18:30ean. Gazte Estazioan.

## Ikuskizunak

### Sondika

- > Antzerkia. *Tipos de Tipos*. Urriaren 22an, 20:00etan. 10 €. Sondikako Kultur Etxean.

### Derio

- > Magia jaialdia eta Hippy azoka. Urriaren 7an eta 9an. Aldekone eta Sollube kaleetan.
- > Antzerkia. *Encomendados*. Manu Kas eta Gonzalo Jiménez. Urriaren 14an, 20:30ean. 3 €. Gurea Aretoan.

## Irteerak

### Derio

- > Perretxikotara joan erakusketarako. Untza Mendi Taldeak antolatua. Urriaren 8an, 08:00etan. Udaletxearen aurrean.
- > Nafarroa Oinez. Urriaren 16an. Viana eta Lodosa.

a: Gredos. iturria, vivegredos.com



### Zamudio

- > Gredosera asteburuko irteera (Almanzor - Galana). Arroetak taldeak antolatua. Urriaren 6an.
- > Ultzamara perretxikotan. Zizegorri Taldeak antolatua. Urriaren 22an.
- > Gipuzkoatik egun osoko ibilbidea. Arroeta taldeak antolatua. Urriaren 30ean.

## Jaiak

### Derio

- > San Migel jaiak. Urriaren 2ra arte.
- > Adineko Pertsonen Nazioarteko Egunaren ospakizuna. Urriaren 3an, 19:00etan. Kultur Birikan.
- > Andre Baserritarraren Nazioarteko Egunaren ospakizuna. Urriaren 11n, 18:30ean. Kultur Birikan.
- > Txirindularitza jaiak. Urriaren 16an. Herrian.

### Zamudio

- > Edadekoen Nazioarteko Eguna. Urriaren 1ean, 19:00etan. Adintsuen Etxean.

## Kirola

### Sondika

- > Frontenis binakako txapelketa. 16 urtetik gorakoentzat. Azaroaren 20an. 20 €. Goronda Beko kiroldegian.

### Zamudio

- > Kirol eroen Gynkana. Urriaren 15ean, 19:00etan. Gazte Estazioan.
- > Ping Pong txapelketa. Urriaren 22an, 20:00etan. Gazte Estazioan.

## Bestelakoak

### Zamudio

- > Wii txapelketa. Urriaren 7an, 20:00etan. Gazte Estazioan.

**Garmendia ardoak**

Pinea pol., P-3B  
ZAMUDIO  
Tel./Faxa: 94 452 00 49

**Hartz-klinika IDOIA ZUBIETA**

Osasun-zentroa & Hartz-estetika  
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aretilla dokorea, 11. - 1. esk.  
48011 BILBAO  
T: 944 416 322

Urte Plaza, 1  
48170 ZAMUDIO  
T: 944 521 370

**OPTIKA IKUSLAN**

Arbolantxa kalea, 5, behea  
ZAMUDIO  
Tel.: 94 452 28 18

ASOCIACIÓN PROFESIONAL DE COMERCIOS Y SERVICIOS DE DERIO



# derio outlet

DERIOKO ZERBITZU ETA MERKATARITZAKO ELKARTE PROFESIONALA

**MUSIKA ETA GIROA,  
SOLLUBE KALEAN**

**Irailaren 29an eta 30ean  
10:00etatik  
20:00etara bitartean**

Deskontu aleatorioak  
**% 5**

**EZUSTEKO DESKONTUAK**

**IRAILEAN eta URRIAN "Danerik Paraje" txartelarekin ordainduz gero**

**\* Atzeratutako ordainketei ez zaie deskontua aplikatuko**



Derioko Zerbitzu eta Merkataritzako  
Elkarte Profesionala

**Danerik paraje!**

Asociación Profesional de  
Comercios y Servicios de Derio



**Derio**



**Derio.com**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN  
ETA LEHAKORTASUN SAILA  
Merkataritza Zuzendaritza  
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD  
Dirección de Comercio

ban  
BASERRIANTZOKIA

Zuretzat

